

hiruka

Udako berezia
209. zenbakia
2024ko uda



URIBE KOSTAKO JAIAK

Festen erritmoak harrapa gaitzala

UZTAILA > IRAILA

BERTSOLARITZA



BERTSO JAIALDI MUNDIALA

Paule Loizaga, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Onintza Enbeita, Joanes Illarregi eta Sustrai Colina

UZTAILAK 12 ASTEAZKENA
19:00 / Sarrera gonbidapenez

MUSIKA



BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA

IRAILAK 7 LARUNBATA
20:00 / 8 €

DANTZA



38. NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIA

UZTAILAK 19>21
20:00 / 3€ (abonua: 7€)

MUSIKA



40. GETXO FOLK

IRAILAK 11>15
20:00 / sarrerak uztailearen 22tik salgai

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Amaia Legarreta

Erredakzioa: Nahia Martinez Gondra, Iker Rincon Moreno, Hodei Torres eta Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto Estudio

Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:
Joseba Santxo

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

HIRUKAk ez du zertan bat etorri aldizkari honetan parte hartzen duten kolaboratzaileek adierazitako iritziakaz.

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

Danontzat gozagai!

Danba! Eztanda hotsa, bolbo-ra-usaina, musika, parranda, dantza eta algara; txupinak zerua gurutzatu eta festak leher egin du Uribe Kostan. Udaren etorrerak herriz herriko hitzordu go-gangarrienei egin die ongietorria, eta zitei hutsik ez egiteko, urtero legez, hona hemen datozen asteotarako plangintza behar bezala osatzeko datu denak: karmenak, andramariak, santiagoak, saninazioak, sanagustinak, sanantolinak... Den-dena topatuko duzu orrialdeotan. Har ezazu markagailua eta txonbo egin jaietan!


Oporrak, bidaiak, deskantsua, plazera... Plisti-plasta hondartzako zein erreketako uretan lasaitasunean eta beroaldietatik zein festetatik ihesi ibili gura dutenak ere ez ditugu ahaztu. Hori horrela, jaiaren zurrunbilotik kanpo egoteko, baina urrun joateko

beharririk ez izateko, hamaika aukera eta proposamen txertatu ditugu baita ere honen ondotik datozen orrialdeotan, bisitatzeke zein dastatzeko, dena ez baita festa izango!

Gurean zein kanpoan, uda disfrutatzeke unea da, norbere burua zein gertukoa zaintzekoa. Oporretan, kalean zein festa-giroan, errespetuz jokatu ondoan duzun horregaz, sexu, genero zein jatorria edozein dela ere. Karrika denona da; festak guztionak dira; uda denontzat da. Udaldiaz gozatu; parrandan murgildu; errespetuz mugitu; eta, eskualdean gertatzen denaz informata eta ezer galdu ez dezazun, gogoan izan, hiruka.eus webgunean izango gaituzula egunero zure zain. Eta kaltetik beheko irudian ageri den pegatina ikusten baduzu... Ez izan beldur, QR-a irakurri eta txonbo egin geugaz udan! **Prentsa euskaraz, prentsa euskaraz!**



Uribe Kosta jaietan



Orriotan topatuko dituzun hainbat egitarau behin-behinekoak dira, beraz, kode hau eskaneatuz gero informazioa gaurkotuta izango duzu. Gainera, bertan, herri eta auzoetako jaien informazio gehigarria, argazki-galeriak eta bideoak ere topatuko dituzu.

▶ ALBE agenda	
UDAKO BERTSO-SAIOAK	50
▶ Usategi	
ZEZENSUZKOA	51
▶ Aisialdia	
ETXETIK GERTU, HAMAIKA AUKERA	54-55
▶ Gastronomia	
LEHIAKETETARAKO ERREZETAK ETA GEHIAGO	56-59
▶ Zozketak	
ASKOTARIKOAK ZURE ZAIN	63

Herriko jaien egitarauak

▶ Berango	
Uztailak 26-28	
SANTA ANA JAIAK	18
Abuztuak 2-5	
SANTO DOMINGO JAIAK	31
Abuztuak 11	
BAKAILAO EGUNA	31
▶ Erandio	
Uztailak 10-14	
SAN KRISTOBAL JAIAK Goierri	6
Uztailak 19-21	
ASUAKO JAIAK	11
Abuztuak 5-11	
SAN LORENTZO JAIAK Astrabudua	34-35
Abuztuak 14-15	
ANDRA MARIKO JAIAK Erandiogoikoa	40
Abuztuak 17-18	
SANTIMAMIKO JAIAK	40
Abuztuak 27- irailak 1	
SAN AGUSTIN JAIAK Altzaga	46-47
▶ Getxo	
Uztailak 19-21	
NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIA	16
Uztailak 19-21	
SANTA ANA JAIAK Areeta	17
Uztailak 25	
AIXERROTAKO NAZIOARTEKO PAELLA EGUNA	22
Uztailak 27-31	
SAN INAZIO JAIAK Algorta	24-27
Uztailak 31-abuztuak 4	
ITZUBALTZETA/ROMOKO JAIAK	28-30
Abuztuak 10	
SAN LORENTZO AZOKA Algorta	36
Abuztuak 9-12	
PORTU ZAHARREKO JAIAK	37-39

▶ Gorliz	
Uztailak 5-7	
DASTATUARTE JAIALDIA	7
Uztailak 22-26	
SANTIAGO JAIAK	20-21
Abuztuak 2-5	
ANDRAMARIAK	32
Abuztuak 10	
SAN LORENTZO EGUNA	36
Abuztuak 17-18	
UREZARANTZAKO JAIAK	41
▶ Leioa	
Uztailak 31 - abuztuak 4	
PINUETAKO JAIAK	28-30
Abuztuak 17-18	
SANTIMAMIKO JAIAK	40
Abuztuak 22-25	
SAN BARTOLOME JAIAK	42
▶ Lemoiz	
Uztailak 11-16	
KARMEN JAIAK Armintza	8-9
Uztailak 13	
TXAPEL REGGAE	10
Abuztuak 14-18	
ANDRA MARIKO JAIAK Urizar	32
▶ Plentzia	
Uztailak 10	
SAN KRISTOBAL JAIAK Txipio	6
Uztailak 13-16	
KARMEN JAIAK	14
Uztailak 23	
MADALENAK	14
Uztailak 29	
SARATXAGAKO JAIAK	14
Uztailak 31	
SAN INAZIO JAIAK	14
Abuztuak 24 - irailak 2	
SAN ANTOLIN JAIAK	44-45
▶ Sopela	
Uztailak 12-16	
KARMEN JAIAK Larrabasterra	12-13
Uztailak 19	
FOLKLORE BIZIAN JAIALDIA	16
Uztailak 20	
SANTA MARINA EGUNA	15
▶ Urduliz	
Uztailak 13	
RABU EGUNA	7
Uztailak 20 eta 22	
SANTA MARIÑEKO JAIAK	15
Irailak 6-15	
ANDRA MARIKO JAIAK	48-49

Erando San Kristobal jaiak

Goierriko jaiak berpizten

Jai-batzorde berriak bigarren antolatuko ditu Goierriko jaiak, Erandion. Lau eguneko egitaraua prestatu dute, auzotar guztiak jaietan batzeko helburuagaz.

Sokatira taldeko zortzi gaztek osatzen dute Goierriko jai-batzordea, denak 18 eta 21 urte bitartekoak. Iaz hartu zuten jaiak antolatzeko erreleboa, eta hilabeteak daramatzate horiek antolatzen; egindako lanaren fruituak ikusi ahal izango dituzte uztailaren 10etik aurrera. Azpimarratu dute auzokoen eta Udalaren laguntza ezinbestekoa dela, beraiek gabe ezinezkoa litzatekeelako gutzia antolatzea.

«Esango nuke auzokoentzako jaietako ekinzarik garrantzitsuena Euskal Herriko Sokatira Txapelketa izango dela, 560 kilogramokoak ospe handiena duena dela esan baitaiteke», azaldu du Gorka Zarraga jai-batzordeko kideak. «Etxean lehiatzeak asko motibatzen gaitu eta inguruko auzo eta herrietatik jende asko etortzen da hori ikustera; gainera, gauean erromeria eta DJ-a ere izaten da, eta horietara ere asko animatzen dira», gaineratu du. ◀

Uztailaren 10etik 14ra



Uztailak 10, eguaztena

- 12:00 Meza.
- 12:30 Auzoko nagusientzako luntxa.

Uztailak 12, barikua

- 18:00 Umeen jaitsiera San Kristobaletik Iberre auzora. Txokolatea hartu eta berri gora.
- 19:00 Txinbera-lehiaketa, Jagoba Bilbaoren omenez.
- 20:00 Umeentzako disko-festa.
- 21:00 Burruntzi-pintxoak denentzako.

Uztailak 13, zapatua

- 17:30 Trikitilariak eta giroa, Goierriko eskola zaharrean.
- 18:00 Euskal Herriko Sokatira Txapelketa: emakumeak eta gizonak.
- 18:00 Umeentzako puzgarriak.
- 20:00 Kalejira San Kristobal basilizara.
- 20:30 Saiheski-jana.
- 21:00 Sorginaren Trena.
- 23:00 Erromeria: Trikizio.
- 02:00 Bingoa
- 02:30 Show Party.

Uztailak 14, domeka

- 12:00 Meza.
- 13:00 Goi Alde Dantza Taldearen erakustaldia.
- 18:00 Asto-probak.
- 18:00 Olgetan solas.
- 20:30 Sari-banaketa.
- 21:00 Jaien amaiera eta kupelaren hustea.

Plentzia San Kristobal jaiak

Txipion hasiko da festa

Plentziako auzoetako jaien segida Txipio auzoko San Kristobal jaiak hasiko da.

Aurten ere, *walking football* txapelketa bategaz hasi dituzte jaiak Txipio auzoan. Ekainaren 30ean izan zen, eta Athletic Fundazioa, CDF Ibarreko, Real Sociedad Fundazioa, Berango FT eta SD Plentzia taldeak aritu ziren Errotabarri futbol zelaian. Horrez gain, uztailaren 9an, 22:00etan, *Mavka, basoaren zaindaria* pelikula eskainiko dute euskaraz Gatzamiñen egingo duten aire zabaleko proiektzioan. ◀



Txipioko jaietako ekintza nagusiak San Kristobal Egunean bertan egingo dituzte, uztailaren 10ean.

Uztailak 10

Uztailak 10, eguaztena

- 11:00 Txupinaren jaurtitzea eta txistulariak.
- 12:00 Lore-eskaintza eta aureskua.
- 17:00 Dantza-saioa, Plentziako Itxas Eder taldearen eskutik.
- 18:00 Umeentzako jolasak eta tailerrak.
- 20:00 Kantu-jira, Plentzia Kantaguneraren eskutik.
- 20:00 Talo-jana.
- 21:30 Zezensuzkoa eta jaien amaiera.

Gorliz Dastatuarte

Solidaritatea ikusaraziko dute Dastatuarte jaialdian

50 jarduera inguru dakartza aurtengo Dastatuarte Food & Art jaialdiak Gorlizera. Hala, uztaileko lehen aste-akabuan, jatekoak eta arteak bat egingo dute.

Gorlizen erabat errotuta dagoen jaialdi gastronomiko eta kulturalaren bosgarren edizioa egingo dute uztailaren 5etik 7ra. Hala, herriko kaleak pintxo, foodtrucez, artisauz, tailerrez, antzerkiz, zuzeneko musikaz eta beste hainbat ekintzez beteko dituzte. Dastatuarte jaialdirako berariaz sortutako pintxoak 1,20 eurotan salduko dituzte, eta herritarrek horiek epaitu ahal izango dituzte, tabernetan emango dizkieten pintxo-txartelen bidez. Pintxo bakoitzeko zigilu bat jasoko dute, eta lehiaketan parte hartzen duten tabernetan egongo diren postontzietan utzi ahal izango dituzte txartelak. Nerea Goiri Turismo teknikariak azaldu duenez, jaialdiaren helburua da gorliztarrei kalitatezko proposamen bat eskaintzea, herria dinamizatzea eta turistak eta bisitariak erakartzea. Gainera, xede solidarioa ere izango du: uztailaren 7an, 14:00etan, Autismo Euskadiren aldeko paella solidarioa egingo dute. Hala, autismoa duten pertsonentzako eta haien familientzako izango da batutako dirua. ◀

Urduliz Rabu Eguna

Urdulizko giroa piztuko du rabu-kazolen lehiaketak

Aurten, uztailaren 13an, zapatuan, egingo dute usadio luzea duen Rabu Txapelketa. Hala, goiz-goizetik txistulariak herriko toki ezberdinetan egongo dira, eta 12:30ean, Iratxo Gorria dantza taldearen ekitaldia egongo da, Boiza trikitilariak girotuta. 12:45ean bukatuko da lehiaketan parte hartzeko epea, eta kazolen aurkezpena eta epaimahaiaren xede-hartzea 13:30ean izango da. Behin irabazlea erabakita, jaiari amaiera emango diote, 17:30ean, sari banaketagaz eta Burrenba elektrotxaragaren musikagaz. ◀

Jarduera batzuez disfrutatu ahal izateko, aldeztu aurretik izena eman beharko da Gorlizko Turismo Bulegoan (Eloisa Artaza 1), 946 774 348 telefonora deituz edo info@visitgorliz.eus posta elektronikoaren bidez.

Ordutegia
07:00etan jaurtiko dute txupina; 12:45ean, rabu-lehiaketan parte hartzeko epea bukatuko da; 13:30ean izango da kazolen aurkezpena eta, 17:30ean, sari-banaketa eta elektrotxaranga egingo dute.

Uztailaren 5etik 7ra

Uztailak 5, barikua

- 19:00-23:00 Jamonostruk, Ondarganan.
19:00-23:00 Kalejira Disko Festa Sound, Ibarreta plazatik Elizako plazara.
20:00 Talo-salmenta, Le Suprem, Lovers & Mafaldo, artisau-garagardoa, Elizako plazan.
20:15 Kontzertua: El Improviso, Elizako plazan.
22:00 Magia eta ilusionismoa, Elizako plazan.

Uztailak 6, zapatua

- 11:00-14:00 Klariona tailerra, Ibarreta plazan.
12:30-23:00 Jamonostruk, Ondarganan.
12:30-13:30 Tailerra: jiaoz tailerra, Ondarganan.
12:30-14:30 Tailerra: azukrerik gabeko bonboi tailerra, San Pedro plazan.
13:00 Zuzeneko musika, ArteGunea & GastroGunen.
13:00-14:30 Zure tote bag poltsa margotu, Elizako plazan.
18:00 Fruta goxoa! ArteGunea & GastroGunen.
18:30-19:45 Asier Caldas & Bizkaiko Txakolina, Elizako plazan.
19:00-20:00 Antzerkia: *Izarren Hartza*, Ondarganan.
19:30-21:00 Disney & Polinesiako dantzak, Ibarreta plazan.
20:30-22:00 Dj Kriss, San Pedro plazan.
22:00 Bakarrizketa: Diario Mares, Elizako plazan.

Uztailak 7, domeka

- 11:30-12:30 Pintura liburu baten bidez, Ibarreta plazan.
12:30-23:00 Jamonostruk, Ondarganan.
12:00-13:15 Yoga eta ipuinak, Ondarganan.
12:00-13:30 Diseinatu zure hiru marra, San Pedro plazan.
12:00-13:30 Elikadura osasuntsua: aire-frijigailuagaz tailerra, San Pedro plazan.
14:00 Paella solidarioa, Elizako plazan.

Dastatuarte
jaialdiko
egitaraua osoa



Karmenakaz, hasi da uda!

Uztailaren 11tik 16ra

Uztailak 11, eguena

- 18:00 Txupinaren jaurtiketa eta pregoiaren irakurketa.
- 18:30 Umeen eta helduen triatloia.
- 20:00 Kontzertua txosnan: Rock&Rollo.
- 21:30 Otarrainxkak, txosnan.
- 22:00 DJ Iker.

Uztailak 12, barikua

- 12:00 Umeentzako tailerrak.
- 12:30 Marianito prestatuaren txapelketa.
- 17:00 Pala-partidak, frontoian.
- 20:00 Mozorro-lehiaketaren jaitsiera.
- 23:30 Erromeria, Urrats.

Uztailak 13, zapatua

Txapel Reggae jaialdia

- 12:00 Batukada.
- 12:00 AfroDance Masterclass, skate-pistan.
- 13:00 Diversity Enea, txosnan.
- 15:00 Sound Systemak, skate-pistan.
- 21:00 Kontzertuak, portuan.

Uztailak 14, domeka

- 13:00 Nagusientzako hamaietakoa.
- 17:00 Bingo musikatua, txosnan.
- 20:00 Mariatxiak, txosnan.

Uztailak 15, astelehena

- 12:00 Umeentzako tailerrak.
- 12:00 Puzgarriak.
- 15:00 Tortilla-txapelketaren aurkezpena, txosnan.
- 17:00 Bits-festa.
- 20:00 Txiki-poteo.
- 23:00 Kuadrillen jolasak, txosnan.

Uztailak 16, martitzena

- 17:00 Meza.
- 18:00 Prozesioa.
- 19:00 Ur-jolasak.
- 22:00 Kuadrillen bideo-lehiaketa, txosnan.
Traka eta jaien amaiera.



Uztaileko bigarren hamabostaldian ospatuko dituzte Armintzako jaiak.

Udaro bezala, Armintzako portu-auzoak festa eta poztasun handia eskainiko ditu. Hala, beroaren hasieragaz batera, bueltan dira Karmengo jaiak!

Lemoiztar guztien unerik maitatuena heldu da azkenean. Udaren hasieragaz batera, biztanleek Armintzako jaietz gozatu ahaliko dute berriro ere. Uztailaren bigarren hamabostalditik aurrera, herria jai giroan murgilduko da, eskaintza zabaleko egitaraua aurrera eramateko asmoz. Zehazki, uztailaren 11tik 16ra izango dira aurten festarako egun bereziak. Jai-batzordeak herritar guztiak kontuan hartuz sortu du programazioa, adin guztietako lagunentzako ekintza ezberdinak eskainiz. Jokoak eta lehiaketak ez dira faltako, izan ere, marianito prestatuaren txapelketa egingo dute, umeen eta helduen triatloia, baita mozorro-lehiaketaren ohiko jaitsiera ere. Gainera, aurten berrikuntza bat txertatu dute: kuadrillen bideo lehiaketa egingo dute lagun-talde bakoitzak bere sormen eta produkzio zinematografiko gaitasunak herri guztiari erakusteko. Jatekoari dagokionez, jaietako lehenengo egunean otarrainxkak emango dituzte, txosna-gunean. Horrez gain, nagusientzako hamaietakoa egongo da, eta tortilla-txapelketa ere egingo dute. Musikari dago-kionez, Txapel Reggaeak musika beltzari ohorezko toki gordeko dio, hori baita jaialdiaren erdigunea aurten ere. Gainera, Rock&Bollo kontzertua ere izango dute herritarrek; DJ Ikerrek herria girotuko du, triki-poteo animatua herrian barrena arituko da eta Urrats erromeriagaz dantzan jartzeko aukera izango dute lagun guztiek. Hala, ekintza guzti horiekaz biztanleek eta ingurukoek ez dute aspertzeko astirik izango, beraz, animatu eta gozatu jaietz! ◀

Jai-batzordeak aldaketak egin ditzake; gaurkotua, HIRUKA.eus-en



Armintzako jai-batzordea Karmengo jaiak

«Txapel Reggaea gero eta handiagoa denez, Armintzako jaiak itzaltzen ditu»

Urtez urte, Gurtu Armintzako jai-batzordean dihardu lanean herriko jaiak antolatzen. Hala, Txapel Reggaearen hazkundera bizi du, baita herritarren beharrak asetzeko Karmengo jaien moldaketak ere.

NAHIA MARTINEZ GONDRA ▶

Zein egitarau duzue prestatuta aurtengo Armintzako jaietarako? Urtero bezala, egitarau irekia egin dugu, guztiek euren eguna izan dezaten. Ostegunean, kirol eguna izango dugu; ostiralean, mozorro eguna; larunbatean, Txapel Reggae; igandean, nagusientzako eguna; astelehenean, umeentzako eguna; eta asteartea, jaien oinarri den Karmengo Eguna. Aurtengo berrikuntza da kuadrillen bideo-lehiaketa egingo dugula txosnan. Gero negar egingo dugu, jaien amaiera omentzeko, kar-kar.

Askotariko ekintzak egingo dituzue. Bai. Mozorro-lehiaketako jaitsieran eta ondorengo erromerian herrikoek asko gozaten dute. Ostegunean, triatloia ere izango dugu, urte askotatik egiten duguna. Apur bat nagusiagoa den jendearentzako, Rock&Rollo kontzertua eta 80. hamarkadako musika giroa ere egongo da DJ Ikerren eskutik.

Zein esango zenuke dela jaien esentzia? Egia da polita izaten dela mozorro eguna: kuadrilla ezberdinek euren mozorroak erakusten dituzte goiz-goizetik. Apainduta egoten da herria, taberna ezberdinetara joaten dira lagun-taldeak, eta, orokorrean, oso giro polita dago. Horrez gain, jaiak beti Karmengo Egunaren inguruan eraikitzen ditugu, beraz, hori da jaien esentzia gorena.

Jende asko etortzen da Armintzako jaietara? Txapel Reggae eta jaien artean dugun elkarrekintzak arazoak sortzen dizkigu. Armintzako jaiak maila berdinean jarraitzen dute urtez urte, baina, Txapel Reggaea gero eta handiagoa da eta, orduan, nolabait, bizitzako arlo gehienetan gertatzen den moduan, handiak txikia jaten du. Lehen, adibidez, ostiralak herrikoia goak ziren eta bertokoek lasaiago hartu zezaketen eguna. Orain, goiz-goizetik jende



10-15 kide inguru dira Armintzako jai-batzordean. ARMINTZAKO JAI-BATZORDEA

«Lehen, adibidez, ostiralak herrikoia goak ziren eta bertokoek lasaiago hartu zezaketen eguna. Orain, goiz-goizetik jende pilaketa handiak sortzen dira kanpalekuan. Herriko jendea iri kostatzen zaio jendetza horretara ohitzea. Hala ere, giro polita egoten da gure herriko jaietan»

pilaketa handiak sortzen dira kanpalekuan. Herriko jendea iri kostatzen zaio jendetza horretara ohitzea. Hala ere, giro polita egoten da gure herriko jaietan.

Aurten nork botako du txupina? Urtero «kintoen» esku uzten dugu erantzukizun hori, eta, aurten, 2006an jaiotako gazteen txanda da. Haiei protagonismoa eman nahi diegu herrian eta, bide batez, animatu nahi ditugu jai-batzordean sartzeko. Lehenengo hartu-emanan izan ohi da, eta horrela saiatzen gara haiek ere apurka-apurka herriko ekintzetan laguntzen hasten.

Zenbat zarete jai-batzordean? 10-15 kide inguru gara, eta aurten, 6 kide gazte berri sartu dira. Egia da jaietako jai-batzordearen barruan Txapel Reggaeaz arduratzen den talde handi bat dagoela. Saiatzen gara jaialdian kanpoko jendea lanean izaten, beste ekintzetan herritarrak behar ditugulako.

Azken mezuren bat? Karmengo jaiak oso politak dira, eta lekua, ezin hobea. Hala ere, gogoratu uda osoan zehar Armintzan aparkatzeko arazoak daudela, beraz, aukerarik gomendagarriena garraio publikoa erabiltzea dela! ◀



Musika beltza izango da **Txapel Reggae** arima

Armintza berriro ere reggaez eta giro onez beteko da Txapel Reggae herri-jaialdian. Betiko legez, doakoa izango da, baina aurten herritarrak soilik ibili ahalko dira kotxeagaz Armintzan. Modu horretan, biztanle guztien eta auzoa beraren ongizatea bermatu gura dute.

Txapel Reggae jaialdi famatua uztailearen 13an izango da. Hala, udaro bezala, Armintzako portua sound system dantzagarrietan murgilduko da Euskal Herri osoko gorputzak astintzen jartzeko asmoz. Aurtengo egitarauak mundu osoko artistez gain, kultura beltzaren aldeko apustu nabarmena egingo du. Goizean zehar tailerrak eta ekintza irekiak egingo dituzte, antiarrazismo tailer bat nabarmenduz. Arrastian, sound systema egongo da. Halere, aurten aldaketa bat egongo da, izan ere, antolakuntzatik erabaki dute Armintzako herrigunea guztiz itxita egongo dela kanpoko kotxeentzako: herrian ezingo da aparkatu, sarrerako biribilgunetik hasita araztegia pasatu arte. Hala, herritarrak soilik ibili ahalko dira kotxeagaz. Autobusak ordu erdiro jarriko dituzte gau osoan zehar Plentziako metrotik, beraz, aukerarik onena garraio publikoa erabiltzea izango da. ◀

Gorlizetik datorren sarreran ezingo da aparkatu, autobusa, anbulantziak eta ertzainak pasatzeko libre egon behar delako sarbidea. Beraz, kotxez datorren jendea Bakioko sarreratik soilik sartu ahalko da.

Uztailak 13, zapatua

- 12:00** Batukada: Batukale Samba, txosnan.
- 12:00** Afrodance Masterclass: AfricanVibes Dance.
- 13:00** Diversityenea: Betto Snay eta Marra Junior.
- 15:00** Dub Corner: Kwsk Ninja aka Navato, Ziztada & Erlantz + Komandu Soinu Beltzak, Bomb Bass Hifi.
- 21:00** Kontzertuak, Biobizz Stagen: Macka B & the Roots Ragga Band, Askala Selassie, Ashraff30 & The Souns Rebels, Emeterians.



Asuan ere prest daude jaiak handikiro ospatzeko

Auzo txikia izan arren, bertako bizilagunek uztailaren 19tik 21era ospatuko dituzte festak; beste urte batez, jai-batzordeko kideek hiru eguneko egitarau ederra prestatu dute horretarako.

Goierriko San Kristobal jaien ostean, Asua auzoko txanda izango da Erandion. Uztailaren 19tik 21era ospatuko dituzte aurten, iaz baino astebete beranduago. Egun horietan, asuarrek ederto pasatzeko eta elkartzeko aitzakia perfektua izango dute hiru egunez. Horretarako, jai-batzordeak egitarau oparoa prestatu du: herri-bazkariak, beteranoen eta umeen futbol-txapelketak, igel-toka lehiaketa, umeentzako jarduerak... Jaietako musika jartzeaz arduratuko dira Matraka elektrotzaranga, mariatxiak eta Urrats erromeria. Horiek bukatzean, txosnan festa goizaldera arte luzatuko dute. ◀

Uztailaren 19tik 21era

Uztailak 19, barikua

- 19:00** Erromeria Olagetan Solasegaz eta kalejira herriko txistulariakaz.
- 20:30** Txupinaren jaurtitzea.
- 21:00** Sardina-jana eta igel-toka lehiaketa.
- 23:00** Matraka elektrotzaranga eta musika txosnan gaua bukatu arte.

18:00 Goi-Alde eta Gorantzaileak dantza taldeen dantzaldia.

19:30 Marrazki lehiaketa eta aurpegi margotzea.

21:00 Burruntzi-pintxo dastaketa.

21:30 Mariatxiak.

00:00 Urrats erromeria.

Uztailak 20, zapatua

- 11:00** Umeen futbol-torneoa, Arteagan.
- 11:45** Beteranoen futbol-partidua.
- 13:00** Trikipoteoa Asuatik.
- 15:00** Herri-bazkaria.
- 17:30** Sari-banaketa.

Uztailak 21, domeka

12:30 Meza santua.

15:00 Herri-bazkaria.

17:00 Bingoa eta dantzagarriak.

18:30 Kontzertua: Triskele.

20:00 Jaien amaiera.



**GURE PREZIOEZ
HAIN ZIUR GAUDE
TATUATU EGITEN
DITUGULA.**

EROSI GEHIAGO

ORDAINDU GUTXIAGO

makro

Jaiak ez du etenik izango

Karmengo jaiak berriro ere berpiztuko dute Sopela uztailaren 12tik 16ra. Hala, egitarauak hamaika ekintza ditu prest herritar guztiek horiez gozatzeko.

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

Peña Txuri Sopolako surf taldeak 35 urte beteko ditu aurten, eta data berezi hori sanpedroetako txupina botatzeko ohoreagaz ospatuko dute. Egun, 400 bazkide aktibo baino gehiago dira, eta euren helburua da herritarren artean surfa sustatzea, baita itsasoaren eta naturaren zaintza zabaltzea ere.

Nola aldatu da taldea 35 urteotan? Peña Txurik hazkunde esanguratsua izan du. Surf-zale talde txiki bat bezala hasi zena komunitate zirrargarri eta askotarikoa bihurtu da. Gure instalazioak eta bazkide kopurua handitu eta jarduera eta programa ugari garatu ditugu, herriko gazteentzako doako surf ikastaroak barne, ikastetxeen bitartez.

Zein ekarpen egiten diozue herriari? Haur, gazte eta helduek kirolaz, adiskidetasunaz eta bizimodu osasuntsuaz gozatzeko topagune bat sortu dugu. Surfa guztiontzat eskuagarri dagoen jarduera gisa sustatu dugu, egoera ekonomikoa edozein dela ere, eta herritarrek ingurumenaren zaintzaren garrantziaz kontzientziazteko lan egin dugu.



Surf egokituaeren aldeko apustu sendoa egin dute, pertsona guztien inklusioa

«Klubetik atera dira munduko txapeldun asko, hala nola David Perez, Eunatze Aguirre, Iker Trigueros, Leticia Canales, etab. Gaur egun, Oinatz Ortega, Erlantz Amezua eta Ines Municio ditugu, besteak beste»

Aurten txupina botako duzue. Nola sentitzen zarete? Oso ilusionatuta eta harro gaude klubaren 35. urteurrena delako aurten. Gainera, pregoia klubeko surf egokituko kirolariek egingo dute. Hori oso berezia da guretzat, inklusioarekin eta elkartasunarekin dugun konpromisoa islatzen duelako. Azken urteotan, lan ikusgarria egin dugu surf egokituaeren arloan, eta uste dugu beraiek izan behar dutela eguneko protagonistak. Euren ahalegina saritu nahi dugu eta erakutsi surfa guztiontzat dela eta ez duela oztoporik.

ARTOLOZAGA

Tailerrak

ANAIK

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine, 42
94 676 00 13
94 676 38 14
www.taleresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74



Jatorrizko bermea mantentzen dugu!



hamilton

Language Cert

APPROVED TEST CENTRE

Sopelan!



eta surferako sarbidea sustatuz. © PEÑA TXURI SURF TALDEA

Orduan, jaietarako gogotsu zaudete? Zein da gehien gustuko duzuen ekintza? Bai, festez gozatzeko gogo handia dugu! Kuadrillen jai-tsiera eta txupinazoa dira gure ekintza gustuenak, klubeko belaunaldi ezberdinak ekitaldi berean elkartzen dituelako. Karroza eta mozorroak prestatzea eta dantza une ezin hobekak dira lagunak elkartzeko eta urtean zehar hainbeste bat egiten ez dugun klubeko pertsonak ezagutzeko. Egia esan, ez dugu jaietako egun bakar bat ere galtzen, gustu guztietarako planak daudelako. ◀

Uztailaren 12tik 16ra

Berrero ere, askotariko egitaraua osatu dute Sopelako Udalak eta jai-batzordeak Karmengo jaietarako. Adi ekintza guztietara!

Uztailak 12, barikua

- 18:30 Parrillada, jubilatuen etxean.
- 19:00 Jaien hasiera kalejiragaz, Loiola Ander Deuna kaletik hasita (surflariaren eskulturaren).
- 20:00 Pregoia eta txupina, Barinatxe txistu taldeagaz.
- 20:30 Dj Porru umeentzako ikuskizuna, Urgitxieta plazan.
- 22:00 Zezensuzkoa.
- 22:30 Ziin and The Melody Breakers kontzertua, Urgitxieta plazan.

Uztailak 13, zapatua

- 13:00 Linea Continua taldearen kontzertua, Zutarri tabernan.
- 11:00-14:00 eta 17:00-20:00 Umeentzako jolas parkea, Urgitxieta plazan.
- 14:30 Herri-bazkaria, Urgitxieta plazan.
- 18:00 Tiragoma-txapelketa, Urgitxieta plazan.
- 22:15 Zezensuzkoa.
- 22:30 *Hay poco rock and roll* ikuskizuna, Urgitxieta plazan.

Uztailak 14, domeka

- 09:30 Lasterketa nudista, Barinatxe hondartzan, Munarri Atletismo Taldearen laguntzagaz.
- 12:00 Dantza plaza, Saltoka taldeagaz, Urgitxieta plazan.

- 16:30 Bitsaren jaiak, Urkon.
- 16:30 Guztientzako disko festa, Urkon.
- 17:00-20:00 Haur, gazte eta helduentzako ur-parkea, Urkon.
- 19:30 *Marginalia* dantza ikuskizuna, Urgitxieta plazan.
- 21:30 *Aiurri* ikuskizuna Aukeran dantza taldearen eskutik, Urgitxieta plazan.

Uztailak 15, astelehena

- 11:00-14:00 eta 17:00-20:00 Umeentzako jolas parkea, Urgitxieta plazan.
- 19:00 *Dale Ramon* nagusientzako kale antzerkia, Iberrota parkean.

Uztailak 16, martitzena

- 12:00 Kalejira Barinatxe txistu taldeagaz.
- 12:30 *Art Ilusio* familia osoarentzako kale ikuskizuna, Iberrota plazan.
- 19:00 Kalejira Bilbotarrak taldeagaz.
- 22:00 *Kantu berri bat gara* ikuskizuna, Urgitxieta plazan.

Sopelako
Karmen jaien
egitaraua osoa



Kafetegia
GOXO BREAK
Ogidenda

• ore amarekin egindako osia
• gozari bereziak
• pintxoak

gatzarriñe, 14 A-LONJA, LARRABASTERRA

4BIDE PINTURAK
Etkez-etxeko banaketa!

- Pintura eta berniz lanak
- Paper margotuak
- Zoruak

📍 Loroño, 2 SOPELA ☎ 685 732 104
✉ 4bidepinturak@gmail.com ☎ 946 762 992

Oinutsik
Podologia kontsulta
Nahia Andrés Bilbao (Kol. Zb. 236)

Zubigane 4, SOPELA • 94 404 74 20
podologiaoinutsik@gmail.com



Ospakizunek ez dute atsedetik hartuko Plentzian

KARMENGO JAIAK

Uztailak 13, zapatua

- 10:00 Marmitako-lehiaketaren izen ematea.
- 12:00 Txupinaren jaurtitzea.
- 12:30 Bertso-poteoa portuko tabernetan zehar, Pirata eskolaren eskutik.
- 13:00 Marmiten aurkezpena.
- 15:00 Sari-banaketa.
- 17:00 Arrauna: 16. Karmengo Ama Ikurriña eta 7. Emilio Laka Beteranoen estropada.
- 20:30 Kontzertua: Bilbotxeros.
- 22:00 Zezensuzkoa.

Uztailak 14, domeka

- 11:00 Umeentzako jolasak.
- 19:00 Sardina-jana.
- 20:00 Kantu-jira, Plentzia Kantaguneren eskutik.
- 21:00 Kontzertua: Roca y Rollo.
- 22:00 Zezensuzkoa.

Uztailak 16, martitzena

- 11:00 Txupinaren jaurtitzea.
- 12:00 Karmengo Ama Birjinaren omenezko meza.
- 13:00 Karmengo Ama Birjinaren jaitsiera, elizatik itsasadarrera.
- 13:30 Itsas-prozesioa, Arkoterren traineruan irekiko dute segizioa.
- 14:30 Karmengo Ama Birjinaren omenezko aurrekua eta salbea.
- 19:00 Dantza-saioa, Plentziako Itxas Eder taldearen eskutik.
- 21:45 Zezensuzkoa.
- 22:00 Aire zabaleko zinema: *Agur Etxebeste* (euskaraz).

MADALENAK

Uztailak 20, zapatua

- 18:00 Txupinaren jaurtitzea Madalentukuen eskutik.
- 18:30 Kantu-jira herrikoa kaleetatik Eingo taldeagaz eta Madalentukuakaz.
- 18:30 Bits-festa futbito zelaian.
- 19:30 San Antolin Pala Txapelketa, emakumezkoen eta gizonezkoen finalurrekoa, Jai Alai frontoian.
- 22:00 Zezensuzkoa.
- 22:30 Kontzertua: Garilak 26.

Uztailak 21, domeka

- 10:00 Tortilla-txapelketaren izen-ematea (haurrak eta helduak).

13:00 Tortillen aurkezpena.

14:30 Sari-banaketa.

18:00 Nagusientzako bingoa.

18:00 Umeentzako ur-parkea.

19:00 Emakume Master Cup (esku-pilota), Jai Alai frontoian.

19:30 Baflepoteoa.

22:00 Zezensuzkoa.

22:30 Kontzertua: La Txama.

Uztailak 22 astelehena

- 11:00 Txupinaren jaurtitzea eta txistulariak.
- 11:30 Madalentukuen eta Udalbatzaren elkarretaratzea Astilleron, Eliz plazara igotzeko.
- 12:00 Meza Plentziako patroiairen omenez eta aurrekua, Eliz plazan.
- 13:30 Musika bandaren kontzertua Eliz plazan.
- 14:30 Fanfarreagaz girotutako koktela, herriko kaleetan.
- 18:00 Sakatu elektrotxaranga.
- 22:00 Zezensuzkoa, futbito zelaian.

ISUZKITZAKO MADALENTXUAK

Uztailak 23 martitzena

Egun osoan zehar musika eta txosna egongo dira.

12:00 Umeen tortilla-lehiaketaren hasiera.

13:00 Paella-lehiaketaren hasiera.

17:30 Umeen jolasak eta aurpegi-margotzea.

19:00 Herri-txorizada.

20:30 Kontzertua.

SARATXAGAKO JAIAK

Uztailak 29 astelehena

12:30 Aire libreko meza.

13:00 Aurrekua eta luntxa.

15:00 Bingo musikatua.

SAN INAZIO JAIAK

Uztailak 31, domeka

11:00 Diana eta txistulariak.

11:00 Umeentzako tailerrak.

13:00 Meza.

18:00 Dantza-saioa, Plentziako Itxas Eder taldeagaz.

20:00 Disko-festa.

22:00 Zezensuzkoa, Azurtegiendo plazan.

Sopela Santa Marina Eguna

Usadioak mantenduz

Urtero bezala, XV. mendeko Santa Marina basilizan ospatuko dute sopoloztarrek uztailaren 20ko eguna. Ohi bezala, festa eta dantzarako ospakizuna egingo da, ohitura zaharrak birgoratuz.

Uztailaren 20an, zapatuan, Sopelako udaletxeko plazan elkartuko dira herrietarrak Santa Marina basilizarako bidea hasteko. Hala, goizeko 10:00etan geldituko dira eta, Barinatxe txistulari-taldearen musikagaz batera, 140 eskailera igoko dituzte Santa Marina deitutako basilizara arte. Bertan, santuaren ohorezko meza egin eta gero, Fernando Ansoleagaren omenezko aureskua eta lore-eskaintza egingo dute. Jateko unea 12:00etan helduko da, hamaiketakoagaz batera. Beranduago, 14:00etan, tradiziozko herri-bazkaria egingo dute, eta 17:00etan, tortilla-lehiaketagaz egunaz gozatzen jarraituko dute. ◀



Ekintza andana
Tradizioa eta herriko giroa batuko dituzte Santa Marina Egunean. Hala, tortilla-lehiaketa, erromeria eta sari-banaketa ere gozatu ahaliko dute sopoloztarrek.

Egitaraua

Uztailak 20, zapatua

- 10:00** Sopelako udaletxeko plazatik Santa Marina haitzetarako bidea kalejiran egingo dute, Barinatxe txistulari-taldearen doinuek lagunduta.
- 11:00** Santuaren ohorezko meza nagusia, Santa Marina basilizan.
- 11:30** Ohorezko aureskua eta lore-eskaintza Fernando Ansoleaga zenaren omenez.
- 12:00** Hamaiketako trikitiaren musikagaz lagunduta.
- 14:00** Herri-bazkaria.
- 17:00** Tortilla-lehiaketa.
- 18:00** Erromeria eta sari-banaketa.

Urduliz Santa Mariñe Eguna

Amen omenezko jaia

Urdulizko Santa Mariñe Egunean ez da jateko ona faltako: hamaiketako, tortilla-txapelketa eta saltxitxa-ogitartekoa izango dituzte aurten!

Urdulizen, urtero legez, ama izandako emakumeak omenduko dituzte uztailaren 20an. Horretarako, santuarenganako errespetua erakutsiko dute eta amei aureskua eskainiko diete. Aurten, gainera, janari gozoa barra-barra egongo da: hamaiketako egingo dute fanfarriagaz batera, 12:15ean; 14:00etan, tortilla-lehiaketako aurkezpenari ekingo diote eta, 20:30ean, saltxitxa-ogitartekoak banatuko dituzte. Hala, 21:00etatik aurrera, gorputza mugitzeko parada ere izango dute Zutik taldearen erromeria dantzagarriagaz. Hala, berriro ere, tradizioa berpiztuko dute. ◀

Egitaraua

Uztailak 20, zapatua

- 10:00** Txistulariak, zahar-egoitzan.
- 11:30** Urdulizko Andra Mari elizatik Santa Mariñeko basilizara igoera, udal-agintariakaz eta txistulariek lagunduta.
- 12:00** Meza nagusia.
- 13:00** Azken urtean ama izan diren emakumeen ohorezko aureskua.
- 13:15** Hamaiketako fanfarriagaz lagunduta.
- 12:30-13:30** Tortilla-lehiaketaren izen-ematea.
- 14:00** Tortillen aurkezpena.
- 19:00** Santa Mariñetik jaitsiera Antsonekoa plazaraino buruhandi eta dantza taldeakaz.
- 20:00** Sarien banaketa.
- 20:30** Saltxitxa-ogitartekoa.
- 21:00** Erromeria Zutik taldeagaz.



Getxo Nazioarteko Folklore Jaialdia

Munduko kulturak eta tradizioak ezagutzeko zita

Dantzak eta musika tradizionala Getxora itzuliko dira uztailaren 19tik 21era Nazioarteko Folklore Jaialdiaren eskutik. Muxikebarri Antzokian izango dira emanaldiak.

Hungariako Ilosvai Talde Folklorikoa, Kazakhstango Naz folklore konpainia nazionala eta Getxoko Itxartu Dantza Taldea izango dira 2024ko Nazioarteko Folklore Jaialdiko protagonistak. Aurten, aurreko edizioetan bezala, dantza-emanaldi guztiak Algortako Muxikebarri Antzokian izango dira, 20:00etan.

Getxoko Itxartuko dantzariak izango dira jaialdia irekitzeko ardura izango dutenak, uztailaren 19an. Taldea sortu zenetik, euskal dantzak eta kultura etengabe berritzeko aukera eman dute, dantzari berrien prestakuntzan egiten duten lanari esker.

Hurrengo egunean, uztailaren 20an, Hungariako dantzez gozatzeko aukera egongo da. Nagyidako Ilosvai dantza folklorikoa 1951n sortu zen, eta bere helburu nagusia da Hunga-



Itxartu Dantza Taldeak emango dio hasiera Nazioarteko Folklore Jaialdiari.

Sarrerak Kutzabanken, Muxikebarrin eta RKEN daude salgai 3 euroko prezioan. Jaialdi osorako bonuak ere daude eskuragai, 7 euroan.

riako goi-lurraldeetako dantza folklorikoaren kultura irudikatzea, bai herrialdean, bai atzerrian. Tradizioekiko errespetua da bere jarduren ezaugarri nagusia.

Azkenik, hilaren 21ean, Kazakhstango Naz folklore konpainia igoko da oholtzara, herrialde erraldoi horren milaka urteko tradizioagaz eta giza balioakaz harmonian dauden kantuak eta musikak gerturatzeko getxoza-rei eta bisitariei. ◀

Sopela Folklore Bizian 2024

Bolivia, Tanzania eta Euskal Herriak erritmo berean egingo dute dantza

Beste urte batez, Sopela nazioarteko dantza-taldeen erdigune bilakatuko da uda garaian, bertoko euskal dantzari ere merezi duen lekua erreserbatuz. Aurten, uztailaren 19an, barikuan, egingo dute 37. Folklore Bizian jaialdia, eta arrastiko 20:00etan hasiko da, Sopolako Ur-gitxieta plazan. Hala, hiru protagonista nagusi izango dira udalerriko oholtza gainean: Bolivia, Tanzania eta Euskal Herria.

Alde batetik, Boliviako Manuel Acosta ballet folkloriko nazionala egongo da, euren herrialdean berezigarri diren flauten eta danbo-rreren soinuen presentzia indartsuagaz. Hala,



Boliviako herritarren indarra eta goxotasuna islatuko dute dantzariak.

Bestalde, Tanzaniako Lumumba talde folkloriko nazionalak ere euren mugimendu bereziak erakutsiko dizkiete sopoloztarrei. Izan ere, Tanzanian, dantza emozioak adierazteko modu bat da, baita arbasoakaz komunikatzeko bide berezi bat ere.

Azkenik, Andra Mari Dantza Taldea dago. Euskal dantzak lantzen dituen Galdakako taldea da, 1955ean sortu zena. 1965etik hainbat jaialditan parte hartu du, eta urtero-urtero, euskal dantzen ordezkari da Folklore Bizian jaialdian. ◀

Herriko auzo txikiek ere festarako tartea dute

Inguruko bizilagunen arteko harremanak hauspotzeko eta auzoa biziberritzeko aukera eskaintzen dute jai hauek.

Auzoko komunitatea indartzeko aukera eskaintzen dute Santa Anako festek. «Izan ere, jai hauei esker, askotariko jendea elkartzen gara, eta jatorri, ezaugarri eta bizimodu ezberdinak izan arren, elkarbizitzan aritzeko aukera ematen digute», azpimarratu dute jai-batzordeko kideek. Ildo horretan, auzoa bera «sendotzeko» antolatzen dituzte jaiak, baina, deitoratzen dutenez, zailtasun handiak dituzte horretarako, antolakuntzarako taldea «gain-behera handian» dagodelako: «Jendea falta da». Diotenez, gazteak ez dira inguruan ibiltzen, eta, ondorioz, zaila izaten ari zaie belaunaldi berriak batzea jai-batzordera. Era berean, auzoak bizi izan duen bilakaera kritikatu dute, hainbat komertzio itxi direlako azken urteetan, soilik lo egiteko auzo bilakatu: «Auzoaren bizitza itzaltzen joan zaigu». Gaur egun, zortzi gizon-emakumek osatzen dute jai-batzordea, eta zereginetan laguntzeko prest dauden auzokide guztiei euren esker ona helarazi diete, «ezinbestekoak dira».

Aurtengo jaiak zelakoak aurreikusten dituzten galdetuta, argi dute: «Txikiak, sinpleak, baina familiarrak!» ◀

Uztailaren 19tik 21era eta 26

Uztailak 19, barikua

- 17:00 Txikigune.
- 19:00 Txupinaren jaurtitzea eta buruhandiak.
- 20:30 Sardina-jana, Marisol arrandegiaren eskutik.
- 22:30 Kontzertua.

Uztailak 20, zapatua

- 10:30 Xake-txapelketa.
- 11:00 Txikigune.
- 13:00 Tortilla-txapelketa.
- 14:00 Blue magoa.
- 15:30 Kuadrillen txapelketa.
- 17:00 Txikigune.
- 17:00 Mus-txapelketa, Amara Berria tabernan.
- 18:00 Igel-toka eta txapela txapelketak.
- 19:30 Zirkua eta umorea, Batacazo konpainiagaz.
- 20:30 Saiheski-jana.
- 21:30 Bingo musikatua.
- 22:30 Kontzertua.

Uztailak 21, domeka

- 11:00 Futbol eta saskibalo txapelketak.
- 12:00 Txikigune.
- 13:00 Paella-txapelketa.



- 17:00 Ur guda.
- 17:30 Apar-festa.
- 18:30 Herri kirolak.
- 19:30 Sari-banaketak.
- 23:00 Zinema
- 23:59 Jaien amaiera.

Uztailak 26, barikua

- 19:00 Meza.
- 19:45 Euskal dantzak Berantzagi Dantza Taldeagaz.
- 20:30 Txitxi-burruntzia.



2024

UDAKO EUSKARA IKASTAROAK



UDAKO IKASTARO TRINKOAK ETA BARNETEGIAK

Matrikula epea: ekainean eta uztailean.

Leioa: 944 64 60 63 | lamia@aek.eus

Getxo: 944 304 734 | lauaxeta@aek.eus

Plentzia: 946 77 36 07 | jentilbaso@aek.eus

Gorliz: 946 77 36 46 | jentilbaso@aek.eus

☎ 688 746 776 | www.facebook.com/UribeKostako-AEK

www.aek.eus/blogak/uribekosta/

673 200 100 / 946 464 000

www.aek.eus



«Etxean dantzatzea beti da

IKER RINCON MORENO ▶

Udalerrian euskal kultura erakutsi guran, urtez urte dantza-emanaldiak eskaintzen ditu Berangoko Otxandategi Dantza Taldeak. Hala, txikienek zein nagusienek, Euskal Herriko baile ezagunenak, eta ez hain ezagunak, taularatuko dituzte udalerriko festetan auzokideen gozamenerako.

Berangoko dantza-talde gisa, zer dira zuentzako udalerriko jaiak? Emozio handiz itxaroten ditugun datak dira. Talde osoa elkartzen gara, eta aspaldi ikusten ez dugun jendearekin berriz ere topo egiteko uneak dira, baita familiarreko eta kuadrillako bazkariak egiteko eta nolabait oporrak ezin hobeto hasteko ere.

Urtez urte, dantza-taldekoek parte hartzen duzue horietan dantzaz. Zelako harrera duzue ikuskizun horietan? Etxean dantzatzea beti da pozgarria, gertuko jendearen babesa sentitzen dugulako. Oso harrera polita eta beroa jasotzen dugu.

Egiten dituzuen ikuskizunei dagokienez, urtero dantza berdina egiten dituzue ala moldatzen dituzue? Euskal Herriko zazpi probintzietako dantzak taularatzen ditugu normalean, baina denak ez dira ikuskizun batean sartzen, oso luzea izango litzatekeelako; beraz, urtero lurralde desberdinetako dantza batzuk sartzen ditugu errepertorioan, beti berdina ez izateko, eta baita gure herriaren aniztasuna plazaratzeko ere. Aurten, adibidez, aspaldi dantzatu ez ditugun pare bat dantza prestatu ditugu.

Euskal Herria

«Taldeak Euskal Herriko zazpi probintzietako dantzak egiten ditu normalean, baina denak ez dira ikuskizun batean sartzen, oso luzea izango litzatekeelako»

Herria

«Euskal kultura sustatzeaz gainera, urte osoko lana aditzera emateko aukera ematen digu Berangoko jaietan dantzatu ahal izateak. Izan ere, inportantea da herrian presentzia izatea»



Urtero, haiei

Jaietan dantzatzeak taldea herrian ezagutarazteko baliagarria dela uste duzue? Bai, noski; guretzako urteko ikuskizunik garrantzitsuenak dira, euskal kultura sustatzeaz gainera, urte osoko lana aditzera emateko aukera dugulako. Inportantea da herrian presentzia izatea, ez dakigulako nondik etorriko diren kide berriak...

Zein egunetan eta zelan parte hartuko duzue aurten? Santa Anako jaietan, txikien taldeko emanaldia izango dugu, uztailaren 26an, 12:00etan. Urtero legez, herriko nagusientzako emanaldia prestatu dute.

TRIBUTU A METALLICA

SANTA ANAKO JAIK

BERANGO KULTURAREN

HAIZE ARROSA

Berango

26 OSTIRALA
viernes

UZTAILA
JULIO

- 12:00 Moza / Misa.
- 13:00 Herriko auzokideen alite eta amamentzat / para los aïtes y amamas.
- 13:00 "OTXANDATEGI DANTZA TALDEA" Umeon taldea / Grupo infantil.
- 18:30 Asto probak / pruebas de burros.
- 19:00 Disko Txiki Festa "Dantzatzeko Press".
- 23:00 Kontzertua / Concierto "Haize Arrosa" +
- 01:00 Erromeria euskaldun "Joxe Mendizabat".

27 LARUNBATA
sábado

- Tortilla eta koktel lehiaketa alkoholarekin eta alkoholik gabe.
- Concurso de tortillas y cócteles con y sin alcohol.
- 13:00 Habanera / Habaneras "Batañara".
- 18:30 Berango Kantari firteira Aргanen/ salida desde Aргane.
- 19:00 Txokolate jana / chocolatada.
- DISKO FESTA Dantza Disko.
- 23:00 Kontzertua / Concierto tributo Metalica con METALMANIA.
- 01:00 "Txikas Gildas" Pop Ye-Ye.

28 IGANDEA
domingo

- 12:00 Haur parkea / Parque infantil.
- 18:30 Herri kirolak haurrentzat / Deporte rural infantil.
- 19:00 Asto probak / pruebas de burros.
- 20:00 Sardina jana / Sardina.
- Gazteentzako Disko Juvenil (anfiteatro).
- 22:00 Kontzertua / Concierto "Ekhy Taldea" Pop Rock.
- 24:00 Erromeria "Ekhy Taldea".

pozgarria»



errepertorioa moldatzen dute Euskal Herriko zazpi probintzietako dantzak herriari erakutsi ahal izateko.

Santo Domingo jaietan aldiz, nagusien eta txikien emanaldiak egingo ditugu. Nagusien taldea abuztuaren 2an izango da, jaien hasiera-egunean; eta txikiena, hilaren 4an. Gainera, egunero taldeko txosnan ikusiko gaituzue, baita afariak ematen ere gure lokalean.

Adin guztietako dantzariak zaudete... Bai! Txikienak 4 urterekin hasten dira dantzatzen. Nagusien taldean eta musikarien artean, aldiz, gazte zein helduak ditugu, baita beste diziplina batzuetan ere, hala nola joaldunen taldean eta abesbatzan. Baina taldearen parte diren beste pertsona inportante asko ditugu ere. ◀

Adin guztietako neska-mutilek osatzen dute Otxandategi Dantza Taldea, txikiak zein nagusiak. Gainera, dantzariak ez izan arren, laguntzaile asko dituztela nabarmentzen dute.

NEBARREBAK
TABERNA

Sabino Arana 20, Berango
ONDO PASA JALETANI

Uztailaren 26tik 28ra

Jaia eta algara, Santa Anara

Uztailak 26, barikua

- 12:00 Meza.
- 13:00 Hamaiketako aitite eta amamentzat eta Otxandategi Dantza Taldeko umeen dantzaldia.
- 18:30 Asto-probak.
- 19:00 Disko Txiki Festa: Dantzatze Press.
- 23:00 Kontzertua: Haize Arrosa.
- 01:00 Erromeria: Joxe Mendizabal.

Uztailak 27, zapatua

- Tortilla- eta koktel-lehiaketak.**
- 12:00 Aldarrikapen txupina eta txosna-jira, jai-batzorde herrikoiak antolatuta. Ondoren, serigrafia tailerra.
 - 13:00 Habanerak: Balandra.
 - 13:00 Igel-toka eta irrintzi txapelketa, jai-batzorde herrikoiak antolatuta.
 - 15:00 Herri-bazkari animatua, jai-batzorde herrikoiak antolatuta.
 - 18:30 Berango Kantari, irteera Axganetik.
 - 18:30 Ermitako esku-pilota txapelketa, jai-batzorde herrikoiak antolatuta.
 - 19:00 Txokolate-edana.
 - 19:00 Disko-festa: Dantza Disko.
 - 23:00 Kontzertua: Metallica taldeari tributua.
 - 01:00 Kontzertua: Txikas Gildas Pop Ye-Ye.

Uztailak 28, domeka

- 12:00 Haurrentzako parkea.
- 18:30 Herri kirolak, umeentzat.
- 19:00 Asto-probak.
- 20:00 Sardina-jana.
- 20:00 Gazteentzako disko-festa (anfiteatroa).
- 22:00 Kontzertua: Ekhy taldea.

PESCADERIA
BEGONA
ARRAINDEGIA

Arrainik onenak!

ETXERAKO ZERBITZUA * 944654978
* 629860174

Sabino Arana Kalea, 17 BERANGO

f i s

Herrigintzaz eta inplikaz

Uztail akabuan kokatzen dira Gorlizko Santiago jaiak, eta jai-batzordetik nabarmendu dute festak bereziak direla kuadrillen «inplikazioari eta lanari esker».

Urtero legez, Gorliz bere jai intentsu-
netarako prestatuko da: Santiago
jaiak. Euren egitarau oparoan edo-
zein auzokidek bere neurrira egin-
dako eskaintza aurkituko du, hamaika auke-
ra daudelako festaz gozatzeko.

Gorlizko jai-batzordeko Inmaculada Arco-
sek azaldu bezala, herritar gehienek desira
eta gustuak bete gura izan dituzte, «publiko
guztiarentzako jarduerak eta ekitaldiak an-
tolatuz». Halaber, aurten hainbat berrikun-
tza daude programazioan: hasteko, txupina
eta trikitilariak egunero egongo dira San-
tiago jaietan, «goiz-goizetik jai-giroarekin
hasteko». Bestalde, *Batetik bestera* musika-
-ikuskitan familiarra txertatu dute aurtengo
egitarauan, natura eta euskara lotuz. Gaine-
ra, kuadrillen lehia irabazten duen taldeak
«POKAKU saria» irabaziko du. Jai-batzordeko
kideek garaikurra diseinatu dute, eta lagun-
-talde irabazleak garaikurra eta 500 euro es-
-kuratuko ditu. Sari hori aurreko urteko kua-
-drilla irabazleak aurtengoari emango dio.
Hala, Arcosek gogoratu du parte hartzeko eta
puntuak batzeko, jaietako lehiaketetan izena
ematea beharrezkoa dela.

Era berean, jai-batzordetik adierazi
dute Gorlizeko gazteria «festetarako gogo



Txupina eta trikitilariak egunero egongo dira aurten jai giroa alaitzen.

«Puntu More bat eta laguntza-zerbitzua izango ditugu behar duten guztientzat, Basotxu eta Itxasbide kaleen irteeran. Bertan, edozein motatako erasoren aurrean laguntza emateko profesionalak egongo dira»

handiarekin» ikusten dutela. Halaber, pozarren ikusi dute gero eta jende gazteagoak parte hartzen duela jaietan. «Gorlizko Santiago jaiak bereziak dira kuadrillen inplikazio, parte-hartze, jaien aldeko lan eta ahaleginari esker», baieztatu du Arcosek.

Hala, gehien disfrutatzen dituzten ekintzak jaitziera, mozorroen desfilea, playback-a, lehiaketa gastronomikoak, kontzertuak eta zezen-puzgarrien entzierroa direla azpimarratu dute. Orain, daborduko dena prest dutela, zintzoki espero dute dena ondo ateratzea: «Eguraldiak lagunduta guztiok jai seguruek gozatu ahal izatea, indarkeriarik eta inolako erasorik gabe». ◀



ioz eraikitako jaiak

Uztailaren 24tik 28ra

Uztailak 24, eguaztena

- 15:00** Herri-bazkaria, Estratakoetxen, frontoian euriagaz.
- 16:30** Jokoak gazteentzat, Eliz plazan.
- 19:30** Pregoia eta txupinaren jaurtitzea.
- 20:00** Kuadrillen jaitsiera, Itsasbide kaletik Ondarganaraino.
- 22:00** Zezensuzkoa, Ibarreta plazan.
- 22:30** Gorliz Pine Groove Festival: Steady Rockets, Mad Muaseal & Big Sound Boy, Krianza Sound eta Puñales, Ibarretan plazan.
- 23:00** Kontzertua: Norman Bates, Ibarreta plazan.
- 00:15** Kontzertua: Zopilotes, Elizako parkingean.

Uztailak 25, eguena

- 10:30** XXXV. Nekazaritza Azoka, Artzelu plazan.
- 11:00** Txu Txu tren.
- 12:00** Meza Coro Lirain abesbatzazagaz, Elizan.
- 11:30-15:30** Ur parkea umeentzat.
- 12:30** IX. Kronoeskalada, Taberne Aurren.
- 12:45** Aurreksua, Aratz Taldeagaz, Eliz plazan.
- 15:00** Herri-bazkaria, San Pedro plazan.
- 18:30** Playback, 16 urte arte. Gero, sari-banaketa.
- 20:30** Playback. 16 urtetik gora. Gero, sari-banaketa.
- 22:00** Zezensuzkoa, Eliz plazan.
- 23:00** Kontzertua: Akerbeltz, Eliz plazan.
- 23:00** Kontzertua: Bocabeats, Ibarreta plazan.
- 00:30** Kontzertua: Old glasses, Ibarreta plazan.
- 01:30** Kontzertua: A&B Show., Elizako parkingean.

Uztailak 26, barikua

- 11:00-14:00** Aikido-, boxing-, saskibaloia- eta zumba-erakustaldiak, Ibarreta plazan.
- 11:30-13:00** Zezen-puzgarrien entzierroa, Eliz plazatik Itsasbidera.
- 13:00** Kuadrillen argazkia.
- 13:00-15:00** Jubilatuentzako luntxa, San Pedro plazan.

- 13:00-15:00** Kuadrillen baflepoteoa. Ibilbidea: San Pedro, Itxasbide eta Eliz plaza.
- 15:00** Kuadrillen bazkaria, Eliz plazan.
- 17:00-20:00** XI. Xake partidak «Josete gogoan», Artzelu plazan.
- 18:30** DJ Pako, Elizako parkingean.
- 18:30** Joseto Ta Alayak elektrotxaranga, Eliz plaza-Ondargana.
- 22:00** Zezensuzkoa, Elizako parkingean.
- 22:00-01:00** Jaikide Diskofesta, Ibarreta Plaza.
- 22:30-01:30** Lehian erromeria, Elizako parkingean.

Uztailak 27, zapatua

- 09:00** XLIV. Bakailao Txapelketa. Estratakoetxen, frontoian euriagaz.
- 11:00-14:30** XXXVIII Artisautza Azoka, Artzelu plaza.
- 11:30** Tortilla Txapelketa. Adina: 13-18.
- 12:30** Tortillen aurkezpena, Estratakoetxen, frontoian euriagaz.
- 13:00** Bakailao aurkezpena, Estratakoetxen, frontoian euriagaz.
- 14:00** Tortillen sariak, Estratakoetxen, frontoian euriagaz.
- 15:00** Bakailaoen sariak, Estratakoetxen, frontoian euriagaz.
- 19:00** XXVII. Mozorro Lehia-desfilea, Itsasbide kalean.
- 21:30** Mozorroen sari-banaketa, Ibarreta plazan.
- 22:00** Zezensuzkoa, Eliz plazan.
- 22:30-01:30** Primo Bayo diskoteka.
- 01:30** Zutik erromeria, Elizako parkingean.
- 23:30-01:00** Kontzertua: Doctor Deseo, Ibarreta Plaza.

Uztailak 28, domeka

- 11:30** Estropadak: Gorlizko II. Ikurrina. Liga ARC1. Badian.
- 13:30-14:30** Bitsa-jaia.
- 20:00** Bertso-saioa, Elizako parkingean.
- 21:00** Igoera: fanfarrea + taldeak + Lekittoko Deabruak (Akelarre Foc). Itxasbidetik Eliz plazara.
- 22:00** Kuadrillen sari-banaketa eta Urriaren erretzea, Eliz plazan.



EROSKI center Gorliz
Pol. Sagastikoetxe, manzana 1
Tel. 946 774 101

EROSKI city Gorliz
Iberre Zeharbide, 1
Tel. 946 774 220

EROSKI city Plentzia
Areatza, 1 · Tel. 946 774 281



Itxasbide 13,
GORLIZ 48630

Etxeko pintxoak
Askotariko konbinatuak
Garagardo eta ardo eskaintza zabala
Ostegunetan...pintxo-pote!

☎ 605 721 172 / 944 346 974
@ newtavern@outlook.com
cafepubnewtavern.multiespaciosweb.com



ROYAL ENFIELD **MOTOMORINI** **UM** **KYMCO** **SEGWAY** **HONDA** **SUZUKI**

TALLER Y TIENDA MULTIMARCA · Tel. 946 774 859 · www.gorlizbiker.com
Pol. Sagastikoetxe - C/ Artzeta, 15 - GORLIZ · info@gorlizbiker.com

Paella usaina nagusi izango da uztailaren 25ean Aixerrrotan



Egitaraua

- 10:30** Nazioarteko Paella Lehiaketan izen-ematea.
- 12:00** Txalaparta deia UKTESTen eskutik.
- 12:05** Aurrekua.
- 12:10** Dantza emanaldia Itxas Argia dantza taldeko txikien eskutik.
- 13:30-14:30** Paellen aurkezpena.
- 17:30** Sari-banaketa.
- 18:30** Erromeria Garilak 26 taldeagaz.

Getxoztarrek uztailaren 25an ospatuko dute Nazioarteko Paella Lehiaketa. Ohi legez, Itxas Argia Taldeak antolatu du jaia, Aixerrrotako landetan.

Getxoko paellarik onena zein den erabakiko duen txapelketarako atzerako kontaketa hasi da, izan ere, uztailaren 25ean, egunean, ospatuko dute lehiaketa. Hala, daborduko dena prestatzen hasi dira hitzordu handi horretarako. Aurreko urtetik erreserba dutenek, uztailaren 8an eta 9an jaso beharko dute toldoa, iazko tiketa erakutsita; soberan daudenak, uztailaren 15ean zozkatuko dituzte. Halaber, ohi legez, gune ofizialeko tutuen muntaketarako laguntza ere eskatu dute antolatzaileek uztailaren 13rako, 08:30etik aurrera, eta, beti bezala, zeregin ho-

Toldoen banaketa

Aurreko urtetik erreserba dutenek, uztailaren 8an eta 9an jaso beharko dute toldoa, iazko tiketa erakutsita.

rretara hurbilduko diren taldeek lehentasuna izango dute soberako toldoen zozketan. Hala, interesa dutenek, alde aurretik izena eman beharko dute Itxas Argiak zabalduko bideen bitartez. Toldoak hilaren 26an bueltatu beharko dira, 19:00etatik 21:00etara, talde horren egoitzan, Malakaten.

Segurtasun neurriei dagokionez, Itxas Argiak jakinarazi du garrantzitsua dela sua egiteko bonbonaren goma iraungita ez egotea, baita likido sukoiakaz kontuz ibiltzea ere. Urtero bezala, 100 bat parte hartzaile espero dituzte Aixerrrotako zelaian, alde «ofizialean».

Uztailaren 25ean, egun handian, kotxeen sarrera baimenduta egongo da Aixerrrotako zelaietara 08:00etatik 09:30era, beharrezko materiala gerturatzeko; orduetik aurrera, landak kotxez libre egon beharko dira. ◀



LXIX NAZIOARTEKO PAELLA LEHIAKETA

UZTAILAK 25 OSTEGUNA

Ondo pasa!



Rosi Mendez Zumba irakaslea

«Nire helburu bakarra da ikasleek dantzagaz euren arazoak ahaztea eta ondo pasatzea»



Bat, bi, hiru... dantza! Aski ezaguna da Rosi Zumba: bere energiak herritar guztien aldakak astintzen jartzen ditu eskualdeko hainbat jaitan.

TESTUA: NAHIA MARTINEZ GONDRA • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Rosi Mendezek txikitatik izan du konexio indartsua musika eta dantzagaz. 18 urteagaz Areetako dantza eskolara apuntatu zen, eta bertan dantza garaikidea, klasikoa eta jazza ezagutu zituen. Bere irakaslea zen Tere jubilatzerakoan, Tandi izeneko dantza-taldea sortu zuen bere lagunakaz, eta ikuskizunak ematen hasi ziren, batez ere, inaugurazioetan. «Bilboko Euskaldunan dantzatzeko aukera izan genuen, Arte Eszenikoen Max Sariatzen», oroitzen du. 2014an, zumba formakuntza jaso zuen eta apurka-apurka kaleko saioak ematen hasi zen: «Lehenengoa, Getxo Kirolak-ek antolatutako Athletic-eko ekimen batean izan zen, Telletxe plazan». Egun, saio solidarioak egiten ditu minbizi metasta-

sikoa duten emakumeakaz, eta udaro dantzatzen du Portu Zaharreko jaietan zein San Nikolas ikastolako ekimen ezberdinetan. Aurten, gainera, Getxoko Ibilaldian dantzatzeko aukera izan zuen. «Niretzako beste maila batera igotzea izan zen. Oholtzatik jaistean negarrez hasi nintzen; oso hunkituta nengoen», baieztatu du, irribarrez. Hala, zumba irakasle gisa duen helburu bakarra da bere ikasleek «ondo pasatzea eta bere arazoez ahaztea». Dantzagain, administrazioan lan egiten du goizetan. «Goizeko lanak egonkortasuna ematen dit familia aurrera eramateko, eta arratsaldeko dantza klaseek, ostera, bizitza ematen didate». Hala, argi du nahiz eta denbora aurrera joan, berak dantzatzen jarraitu duela, «barruan» daraman zerbait delako. «Askotan, oholtzatik publiko guztia ikusten dudanean, pentsatzen dut nola egin dudana hau guztia lortzeko... Oso eskertuta nago». Bere lagun batek behin esan ziona gogoratu du: «Rosi, oholtzan dantzan ikusten zaitudanean, uda gogorarazten didazu». Beraz, jai hauetan ere, eskualdeko lagunek Rosi Zumbaren erritmoan dantzatzeko zortea izango dute udako unerik oroigarrietan. ◀

Uztailaren 27tik 31ra

Uztailak 27, zapatua

- 11:00** ABE Ligako Getxoko XX. Beteranoen traineru estropada – XVI. Portu Zaharreko Ikurrina.
- 12:00** Pregoia irakurriko du Setka taldeak, 2023ko kuadrilla-txapelketaren irabazleak, San Nikolas plazan; ikurrinari omenaldia egingo diote eta suziria botako du Kantxa Kirol Modak, liburutegiko balkoitik.
- 12:30** Kuadrillen jaitsiera irekia (kuadrillen txapelketan parte hartzen duten taldeentzako nahitaezko proba), San Nikolas plazatik hasita.
- 17:30** Getxoko Estropadak: Euskotren Ligako Getxoko Estropaden XVI. Ikurrina eta Eusko Label Ligako Getxoko Estropaden XLVI. Ikurrina.
- 18:00** Nagusien luntxa, Zabala eskolan.
- 18:00** Getxoko Estropaden XLVI. Ikurrina - JA Agirre Lehendakariaren XX. Omenaldia.
- 18:30** Kalejira Patxaranga taldeagaz, Triku tabernetatik abiatuta, herrian zehar.
- 19:00** Nagusien dantzaldia Trio Menta taldeagaz, Zabala eskolan.
- 19:30** XIX. Jota eta Arin-arin Txapelketa, Kasino plazan.
- 19:30** Kalejira eta kantu poteoa Itxas Argiako Kantari-kanta taldeagaz, Salsidu tabernetatik abiatuta, herrian zehar.
- 20:00** Kontzertuak, Triku tabernan.
- 20:00** Gazterdigaz musika eta dantza, Telletxe plazan.
- 20:00** Musika Amezti inguruan, bertako tabernarien eskutik.
- 22:00** Zezensuzkoa, Telletxeko errepidean.
- 22:00** Kontzertuak Katea inguruan: Sexpears. Ostein, musika.
- 22:00** Kontzertuak txosna-gunean: Lenago II eta DJ Fulana.
- 22:00** Kontzertuak Kasino plazan: Territorio Norte eta ostein Djak.
- 22:00** Kontzertuak San Nikolas plazan: DJ Alice.

Uztailak 28, domeka

- 08:30** XXIII. Txipiroi Lehiaketaren izen-ematea, Biotz Alai plazan.
- 10:00** 5. Algortagraff, grafiti-erakustaldia herrian zehar: ume eta gazteentzako tailerra, San Nikolas plazan.
- 10:00** IX Jose Ramon Arrupe Adiskidetasun Xake Txapelketa, Zabala eskolan.
- 11:00** Umeei eta gazteei begirako ekintzak, tailerrak eta puzgarriak,

Telletxe plazan.

- 12:00** Haurrentzako graffiti tailerra Muxikebarri aurreko zuhaitzetan.
- 12:30** Ume eta gazteen Kantxa Kirol Moda Herri Krosa.
- 12:30** Igel-toka, Jose Luis Esteban *Joselu* zenaren omenez, Katea inguruan.
- 12:30** Umeentzako txalaparta tailerra, Telletxe plazan.
- 13:00** Bertso-saioa, Kasinon: Paule Loizaga, Jon Maia, Aissa Intxausti eta Amets Arzallus. Gai-jartzailea: Jon Amezaga.
- 13:00** XXIII. Txipiroi Txapelketaren lapikoen aurkezpena, Biotz Alai plazan.
- 13:30** Mariatxiak Katea inguruko tabernetatik.
- 17:00** II. Algortako San Inazio Xake Txapelketa, Zabala eskoletan.
- 17:00** Musika eta pintxadak, Kasino plazan. «Oilar Borroka»rako izen-ematea.
- 17:30** Txipiroi Txapelketaren sari-banaketa eta giro berezia, Biotz Alai plazan.
- 17:00** Herri Kirolak: Bizkaiko Ingude Jasotze txapelketa, Telletxe plazan.
- 17:30** Gazterdi txapelketako Herri Kirolak frogara, Telletxeko errepidean. (Gazterdi txapelketa, 12-16 urte artekoentzako kuadrilla txapelketa).
- 18:00** XXVI. Zutik Eneko Caballero futbito txapelketaren final laurdenak, Batzokiko patioan.
- 18:00** «Oilar borroka», Kasino plazan.
- 18:00** Kontzertua Katea inguruan: Killer Rabbits.
- 18:30** Buruhandiak herrian zehar, ibilbidea: Sarrikobaso, Algortako Etorbidea, San Nikolas, Tellagorri, Torrene, Telletxe, Sarrikobaso eta Kasune.
- 18:30** Kuadrillentzako herri-kirolak frogara, Telletxeko errepidean.
- 20:00** Kontzertuak Triku tabernan.
- 21:00** Kontzertuak Amezti inguruan, eta ostein, musika. Bertako tabernen eskutik.
- 21:30** Kontzertuak Kasino plazan: Madmuasel, Bigsoundboy eta DJ Beige (DnB).
- 22:00** Zezensuzkoa, Telletxeko errepidean.
- 22:00** Kontzertuak txosna-gunean: Kuter.
- 22:00** Kontzertuak San Nikolas plazan: Leihotikan eta Ezta Ilen.

Uztailak 29, astelehena



irati MODA GAZTEA ETA ARROPAK

94 491 12 71
 iratialgorta@gmail.com
 Torrene, 2 48991 – ALGORTA

- 09:30** Diana, herrian zehar.
- 11:00** Umeentzako jolas, tailer eta puzgarriak, Biotz Alai plazan. Saharar herriari elkartzasuna adierazteko ekitaldia Aftal elkarteagaz.
- 11:00** Umeentzako motor-lasterketa, Tellagorri plazan.
- 11:30** II. Gazterdi txapelketako rally-desafioa, San Nikolas plazan.
- 12:00** Ume eta gazteentzako xake-tailerra, Biotz Alai plazan.
- 12:00** Marianito pintxada, San Nikolas plazan.
- 12:30** Kuadrillen rally-desafioa (nahitaezko proba), San Nikolas plazan.
- 14:00** Saharar herriagaz elkartzasun bazkaria, Biotz Alai plazan.
- 15:00** Gazte-bazkaria Muxikebarriko plazan.
- 18:00** Patxangoi elektrotzaranga, San Nikolas plazatik abiatuta.
- 18:30** Ume eta familien jaitsiera, Kasino plazatik abiatuta.
- 19:00** «Zenbat denboran eutsi garagardo pitxer bat?» Txapelketa, Kasino plazan, bertako tabernarien eskutik.
- 19:30** Umeentzako txokolate-jana eta dantzaldia, Biotz Alai plazan.
- 20:00** Gazterdigaz musika eta dantza, Telletxe plazan.
- 22:00** Zezensuzkoa, Telletxe errepidean.
- 22:00** Kontzertuak txosna-gunean: Naxker eta Ganibet.
- 22:00** Kontzertuak San Nikolas plazan: Hofe eta Ithaka.
- 22:00** Kontzertuak Amezti inguruan.
- 22:00** Kontzertuak Kasino plazan: Easy Ironing.

Uztailak 30, martitzena

- 11:00** Umeentzako tailerrak eta puzgarriak, Biotz Alai plazan.
- 11:30** Ume eta gazteentzako kirol ekintza eta jolasak, Telletxe errepidean.
- 12:00** Kuadrillentzako tortilla-txapelketa irekia (nahitaezko proba) eta Gazterdi txapelketako janari-lehiaketa, San Nikolas plazan.
- 13:00** Bits-festa, ur-jolasak eta ur-gerra, Biotz Alai plazan.
- 13:00** Bertso-saioa, Kasino plazan: Jone Uria, Julio Soto, Peru Abarrategi eta Aitor Mendiluze. Gai-jartzailea: Arrate Illaro.
- 15:00** Gazteen eta helduen kuadrillen bazkaria (nahitaezko proba), San Nikolas plazan. Ondoren, bazkaloste girotua.
- 19:00** Saninazioetako jaitsiera tradizionala, Lau Bidetik Ereaga hondartzako barraketaraino. Iristean, sardina jana, txistulariak, trikitilariak eta zezensuzkoa, Isidoren omenez

(nahitaezko proba kuadrillentzat).

- 19:00** XXVI. Zutik Eneko Caballero futbito txapelketaren finalerdia, Batzokiko patioan.
- 20:00** Kontzertua Katea inguruan: Old Time Spooks.
- 20:30** Kontzertua Kasino plazan: La Tropa.
- 20:30** Giro berezia Amezti inguruan, bertako tabernarien eskutik.
- 21:00** Weepah Sound System, Telletxe plazan.
- 22:00** Kontzertua Katea inguruan: Beleak.
- 22:00** Gau girotua txosna-gunean: karaokea eta plater irekiak.
- 22:00** Kontzertuak San Nikolas plazan: Arene 6 eta DJ Reimy.
- 22:00** Kontzertuak Amezti inguruan.

Uztailak 31, eguaztena

- 11:00** Umeentzako puzgarriak eta tailerrak, Telletxe plazan.
- 11:30** Dantzari-taldeen bilkura eta kalejira, Kasune kaletik abiatuta.
- 12:00** Meza nagusia eta ohorezko aurreksua.
- 12:00** EuskarAbenturako gazteen kalejira, joaldunek lagunduta, Satistegitik Muxikebarriraino.
- 12:30** Euskal dantzen agerraldia, Biotz Alai plazan.
- 13:00** Zumba Rosigaz, San Nikolas plazan.
- 13:00** Bertso-saioa, Kasino plazan: Saioa Alkaiza, Kerman Diaz, Andoni Egaña eta Nerea Ibarzabal. Gai-jartzailea: Beñat Vidal.
- 15:00** Bertso-maratoia Andoni Egaña eta Nerea Ibarzabaleguz.
- 17:30** Erraldoien eta buruhandien konpartsen bilkura eta, ondoren, kalejira, Kasune kaletik.
- 19:00** XXVI. Zutik Eneko Caballero futbito txapelketaren 3. eta 4. postuen arteko partida, Batzokiko patioan. Finala, 20:00etan.
- 19:00** II. Gazterdi Txapelketako erakustaldia, Biotz Alai plazan.
- 19:30** Kuadrillen erakustaldi-saio irekia (nahitaezko proba), San Nikolas plazan.
- 20:30** Kontzertua Kasino plazan: Algo Personal.
- 20:45** Larraindantza, Telletxe plazan.
- 22:00** Zezensuzkoa, Telletxe plazan.
- 22:00** Sari banaketak, San Nikolas plazan.
- 22:30** Erromeria San Nikolas plazan: Bidean.
- 23:00** Su artifizialen ikuskizuna: Vulcano Magia.
- 04:30** Sokasalto txapelketa.



Egitarau hau ez dago osorik. Ekitaldi eta jarduera guztiak ikusteko: HIRUKA.eus-en

aldai

Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Algortako Etorbidea, 76,
48991, Algorta
944 60 90 31





Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!

Algortako jai-batzordea San Inazio jaiak

«Zorionez, laguntzeko prest dagoen pertsona asko dago gure inguruan»

Uztailaren 27tik 31ra bitartean ospatuko dituzte San Inazio festak Algortan, eta jaiak antolatzeko ardura duen batzordeak iragarri duenez, arrakastatsua izango den programa prestatu dute aurten ere.

IKER RINCON MORENO ▶

Hilabeteetan antolaketa lanetan murgilduta egon ostean, Algortako jai-batzordeak dena du prest saninazioetarako, bezperako egunak «oso mugituak» izango direla aurreikusten duten arren. Batzordeko zazpi kideek «herritik eta herriarentzat» filosofian oinarrituta egiten dute lan, eta azpimarratzen dute askotarikoen inplikaziorik gabe «ezinezkoa» litzatekeela festak aurrera ateratzea.

Diotenez, kuadrillak dira jaien «bihotza eta motorra», eta aurten ere 30 bat kuadrilla txapelketan arituko direla espero dute. Gainera, urtez urte talde-kopuru hori areagotu guran, eta gazteei begira zegoen hutsuneak betetzeko asmoz, iaz martxan jarritako Gazterdi kuadrilla-txapelketagaz jarraituko dute oraingoan ere, 12-16 urte arteko neska-mutilentzako: «Sozializatorako lehen urteak izanik, argi genuen arreta handiagoa eskaini behar geniola sustatzen ditugun ekimen mota eta sortzen laguntzen ditugun harreman-sareetan». Aurten, gainera, jaietan edalontzi berrerabilgarrien erabilera hedatzeari begira, horiek gune ezberdinetako tabernetan salgai egongo dira, «jaie-



Zazpi kidek osatzen dute Algortako jai-batzordea. © ALGORTAKO JAI-BATZORDEA

«Jaiak egunez zein gauzez aske eta seguru gozatzeko aldarria gure egiten dugu, eta horregatik lan egiten ari gara jaiak ere gune seguruak izan daitezen»

tan sortzen den zabor-kantitatea murrizteko».

Jaiei hasiera emateko txupina uztailaren 27an jaurtiko dute, eta Kantxa Kirol Modako langileek izango dute ardura hori aurten, «gure herriko bizitzan oso presente egon den dendak eta langileek aipamen berezia merezi dutelako». Hortik aurrera, festa-giroak Algortako erdiguneko txoko ezberdinak zipriztinduko ditu, herritar guztien gozamenerako. Ildo horretan, jai-batzordeko kideek azpimarratu dute festak «auzokide guztiontzako direla, edozein izanda ere bakoitzaren jatorria». Horren aurrean, azpimarratu dute ez dutela inolako jarrera eta diskurtso arrazista eta xenofoborik onartuko, besteak beste. ◀

SAN NIKOLAS
IKASTOLA
SANIKOLAS.EUSIZATOZ

UDA ZORIONTSUA IZAN!

Arenezpi Kalea, 15 (48991)
Getxo, Bizkaia

94 430 54 78
ikastola@sanikolas.eus

ikastolenekartea

ERDIGUNEAN

f i y

Setka Algortako saninazioetako 2023ko jaietako kuadrilla irabazlea



«Oraindik martxa daukagu urte batzuetarako»

IKER RINCON MORENO ▶

Duela bost urte bigarren postuan gelditu ostean, kuadrillen txapelketako garaikurra altxatzeko arantzaxoa kendu zuten iaz Setka kuadrillako lagunek. Diotenez, daborduko talde beteranoa da, 25-26 urteko 23 mutilez osatutakoa; hala ere, iragarri dute oraindino borrokarako prest daudela, eta aurten ere parte hartuko dutela.

Zelan gogoratzen duzue garaikurra altxatzeko unea? Oso berezia izan zen. Orain bost urte irabaztear egon arren, bigarren postuan gelditu ginen. Joan den urtean irabaztearekin, arantza hori kendu dugu.

Gainditu beharreko probetatik, zein duzue gogoan? Tortilla-txapelketa. Azken egunean da, eta helburua da hiru gauren ostean goiz horretara garaiz iristea. Gainera, tortilla ez dugu tamaina estandarrekoa egiten. Joan den urtean, 100 arrautzako tortilla egin zuen Lasa sukaldariak, eta plaza erdia elikatu genuen.

Eta gogorrena zein izan zen? Denak, ajearekin goazelako, baina bereziki Rallya. 10 urteren ondoren beteranoak gara, mutil eta neska azkarragoak eta indartsuagoak datoz gure atzetik. Hala ere, gogoia ez zaigu faltako. Aurten ere lehiatuko gara.

Zein da kuadrillen txapelketa irabazteko gakoak? Guk arretea berezia eskaintzen diogu jai-

Laburrean Gaua ala eguna?

Eguna; elektrotxarangarekin arratsalde batean sortzen den giroak ez dauka parekorik.

Saniko ala Telletxe?

Tartekatzen goaz, egunaren edo dauden kontzertuen arabera.

Zerbait faltan?

Garai batean, gu ume mokoak ginenean, bigantxen proba zegoen Hirukoiztarren ondoan. Kuadrillan behin baino gehiagotan hitz egin dugu horretaz.

Balorazioa jai-batzordeari?

Oso ona. Lan handia egiten dute musu-truk, eta hori beti da eskertzekoa. Gainera, aurten, kuadrillekin hartu-eman handiagoa izaten ari da, probak proposatzeko orduan esaterako.

tsierari. Azken urteotan originalak ari gara izaten; ideia simple bati etekina ateratzean dago gakoa gure ustez. Horrek ikusleen artean pizten du eta barreak sortu ere bai; ez dakit jendeak gurekin egiten duen barre edo gutaz, kar-kar. Jaitsiera ona eginda, lehen proba denez, sailkapeneko lehen postuetan jarraitzen ahalegintzen gara gainontzekoetan.

Helburu hori zenuten lehiatzen hasi zinetenean? Ez. Askotan probaren bat edo beste azken orduan prestatu dugu. Talde askok hilabeteak egiten dituzte probak prestatzen eta, hala ere, ez dute sekula irabazi. Pikereren bat ere badaukagu kuadrillaren batekin.

Pregoa irakurri beharko duzue aurten; zer mezu helaraziko duzue? Oraindik ez dugu testua prestatu, baina Algortako saninazioetara etorri nahi duenak emakumeenganako eta sexu askatasunerako errespetuzko jarrera erakutsi beharko du, eta horren aldeko mezua egingo dugu. Sorpresaren bat ere izango da.

Lehiaketan parte hartzera animatuko zenuzketen udalerriko kuadrilla guztiak? Bai. Giro ederra arnasten da jaietan, eta kuadrilla batzuk zaharkitzen ari gara. Horrek erreleboa behar du.

Zelan baloratzen dituzue San Inazio jaiak? 8 batekin. Oso gustura egiten ditugu probak, futbol txapelketan ere parte hartu dugu eta bazkarietara ez dugu hutsik egiten. Egitaraua nahiko txukuna eta osoa izan ohi da. ◀

Uztailaren 28tik abuztuaren 4ra

Uztailak 28, domeka

- 10:00-17:00** Playback-erako diskoen entregatzea, jai-batzordearen postuan.
- 10:00-17:00** Artisautza eta nekazaritza azoka, Kalamua kalean eta Santa Eugenia plazan.
- 12:15** Pintxo-txapelketa, tabernetan.
- 12:30** Belaunaldien arteko jolasak, Ibar Nagusien Etxeak antolatuta, Santa Eugenia plazan.
- 12:30** Poteo animatua.
- 12:30** Eskulangintza-tailerra, Kalamua kalean.

Uztailak 30, martitena

- 11:30** Mahaiak eta aulkiak muntatzea, Cervantes plazan.
- 13:00** Plater irekia, izen-ematea, Cervantes plazan.
- 13:30** Plater irekia, aurkezpena, Cervantes plazan.
- 16:00** Plater irekia, sari-banaketa, Cervantes plazan.
- 18:30** Goitibeheren kontzentrazioa, Santa Eugenia plazan.
- 19:00** Goitibeheren kalejira.
- 22:00** Goitibeheren igoera, Txistulariaren aldapan.
- 00:00** Erromeria: Lehian, Dolores Ibarruri plazan.

Uztailak 31, eguaztena

- 12:00** Txosnen irekiera, txosna-gunean.
- 13:00** Poteo animatua, Mandangax eta Notxu.
- 14:30** Herri-bazkaria, txosna-gunean.
- 16:30** Kuadrillen arteko olinpiadak, txosna-gunean.
- 18:30** Fanfarrea, kalez kale.
- 19:00** Txitxi-burruntzien salmenta, jai-batzordearen txosnan.
- 19:30** Pregoia irakurketa eta txupinaren jaurtiketa, Santa Eugenia plazan.
- 19:45** Kalejira, fanfarreagaz eta buruhandiakaz.
- 20:30** Dantzen alardea, Zasi Eskolagaz, txosna-gunean.
- 22:00** Las Fellini, Dolores Ibarruri plazan.
- 23:30** Mugimendu feministaren ekimena, Dolores Ibarruri plazan.

23:45 DJ Bull, Dolores Ibarruri plazan.

Abuztuak 1, eguena

- 11:00** Umeentzako parkea, Santa Eugenia plazan.
- 12:00** Trikitilariak, kalez kale.
- 14:30** Elkartasun bazkaria, txosna-gunean.
- 16:00** Bertso-saioa, txosna-gunean. Bertsolariak: Imanol Uria, Igor Elortza, Maddi Ana Txoperena eta Julio Soto. Gai-jartzailea: Erlantz Pazos.
- 17:00** Umeentzako parkea, Santa Eugenia plazan.
- 18:30** Fanfarrea, kalez kale.
- 19:00** XVII. Herri Krosa, Ganetan.
- 19:00** Talo-jan solidarioa, Gobelondo kalean.
- 19:00-03:00** Aiaraldeko Sound System, Dolores Ibarruri plazan.
- 19:30** Banda de Cartón, kalez kale.
- 21:00** Kontzertuak: S.A.D, Txerri Ugerrak, Kaos Urbano eta Oreinak, txosna-gunean.
- 22:30** Zezensuzkoa, Santa Eugenia plazan.
- 23:45** Mugimendu feministaren ekimena, txosna-gunean.

Abuztuak 2, barikua

- 11:00** Umeentzako parkea, Santa Eugenia plazan.
- 12:00** Txistulariak, kalez kale.
- 12:30** Felix Arnaizi omenaldia, Ibaiondo kalean.
- 13:30** Mosto Rallya, txosna-gunea.
- 14:00** Erretiratuen bazkaria, eskolako frontoian.
- 17:00** 56. Rally Poteoa, txosna-gunean.
- 17:00** Umeentzako parkea, Santa Eugenia plazan.
- 18:00** Bits-festa, Santa Eugenia plazan.
- 19:00** Txitxarrilloa, Ibar Nagusien Etxearen eskutik, Ganeta plazan.
- 19:00** Buru-handiak eta txistulariak, Agurra taldeagaz, elizaren ondoan.
- 19:00** Herri Kiroiak, Maiatzaren Bata kalean.
- 19:00** Talo-jan solidarioa, Gobelondo kalean.

JUAN MARI

Harategia  Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

BASTE Food Wine & Jazz

THE FINEST JAZZ
ROMO 48930

DESAYUNOS ESPECIALES - PINTXOS
Goikoa
Berria
- BOKATAS - RACIONES - SOTOS

C/SantaEugenia n°1, ROMO
+34 946304979

- 21:30** Playback-a, Dolores Ibarruri plazan.
22:00 Kontzertuak: Auxili eta Nonbait erromeria, txosna-gunean.

Abuztuak 3, zapatua

- 09:00** II. Putxerak: izen-ematea, Ganeta plazan.
11:00 Umeentzako parkea, Santa Eugenia plazan.
12:00 Trikitilariak, kalez kale.
12:00 Umeentzako ginkana, bizikleta eta motorrakaz, Gobelaurren.
12:00 Txapelak Bat Kantulagunak, kalez kale.
12:00 Errioxatik Romora Dantza Alardea, txosna-gunean.
12:30 Kantugira, Kresaltsu Musika eta Kanta Taldea taldeakaz, Mona tabernan.
13:30 Aerobic, txosna-gunean.
14:30 II. Putxerak: aurkezpena, Ganeta plazan.
15:00 Etxe Merkeen Eguna.
16:00 Putxeren sari-banaketa, Ganeta plazan.
17:00 Umeentzako parkea, Santa Eugenia plazan.
17:00 Mus Txapelketa, Ondategi berrian.
17:00 Tiragoma Txapelketa, Gobelondo kalea.
18:30 Itzubaltzeta Gazte Asanbladaren proba sorpresa, txosna-gunean.
19:00 Bertsozira: Joanes Ilargi, eta Unai Mendiburu, kalez kale.
19:00 Kontzertuak, Metal Fest: Fear Crow, 4 Villains eta Memphis Belle, Dolores Ibarruri plazan.
20:00 Txitxarrilloa: Trio Menta, Ganeta plazan.
20:30 Kalejira, Pro Bolibiaren eskutik, Bizkaia Zubitik hasita.
21:15 Zezensuzkoa, Santa Eugenia plazan.
22:30 Pro Boliviaren ekitaldia, Santa Eugenia plazan.
22:00 Romo Reggae Festival: Gorka Suaia, Potato eta Xiberoots, txosna-gunean.
23:30 Kalejira, txosna-gunean.
23:30 Kontzertua: Kaspas de Rata, Dolores Ibarruri plazan.
00:30 Musika irekia, Dolores Ibarruri plazan.

Abuztuak 4, domeka

- 06:00** Alpagata pertsonaien elkarretaratzea, txosna-gunean.
07:00 Tanga lasterketa, txosna-gunean.
07:00 Txapen lasterketa, txosna-gunean.
08:00 Diana, herrian zehar.
12:00 Tortilla-txapelketa, izen-ematea.
12:30 Tortilla-txapelketa, aurkezpena, Trokazuloren aurrean.
13:00 Boliviako folkloreakaren defentsa, Santa Eugenia plazan.
16:00 Dantza plaza, Zasi Eskolagaz, Gobelondo kalean.
17:30 Tortilla-txapelketako sari-banaketa, Trokazuloren aurrean.
19:00 Bilbainadak: Gambara, txosna-gunean.
19:00 Buruhandiak eta erraldoiak, elizatik hasita.
19:30 Sardina-jana, txosna-gunean.
21:00 Sarien banaketa, txosna-gunean.
23:30 «Pobre de mi», txosna-gunetik hasita, kalez kale.
23:55 Jaien amaierako traka, Ganetako zubian.
23:59 Playback-en berriro ikustea, txosna-gunean.



Egitarau hau behin-behinekoa da; jaiak hurbildu ahala behin betikoaren berri emango dugu HIRUKA.eus-en



ONDO PASA!

...ETA IRAILEAN ITZULI IKASTOLARA!



ikastolenkartea



BETIKO
IKASTOLA
www.betikoikastola.eus



Mandangax Itzubaltzeta/Romo eta Pinuetako 2023ko jaietako kuadrilla irabazlea

«Irabazteko gakoa da jaietan ondo pasatzeko helburua izatea, besterik ez»

Kuadrilla Lehiaketako txapela jantzi zuen iaz Mandangax kuadrillak. Kideek diotenez, hirugarren aldia da garaikurra altxatzen dutela, eta goitibehera da gustukoen duten proba.

IKER RINCON MORENO ▶

Itzubaltzeta/Romo eta Pinuetako jaien kuadrillen lehiaketan beteranoak dira Mandangax taldekoak. 2012tik daromatxate horretan parte hartzen, eta urte hartan kide asko ziren arren, gaur egun 5-7 lagunek baino ez dute lehiatzen. Aitortzen dutenez, beste kide batzuk dituzte laguntzen, eta egoera horrek ez die trabarik egin garaikurra altxatzeko, iazkoa hirugarren aldia izan baitzen txapeldun gelditzen zirela. Horretarako gakoa: «Ondo pasatzea. Pentsamolde horrekin parte hartzea dela garrantzitsua konturatu gara». Hala, hori buruan dutela, ez dute dudarik aurten ere gauza bera egin dezaketela, urtero legez gozatzeko irtengo baitira kalera auzoko festetan, egunez zein gauez, egunero eta orduero Mandangaxeko kideren bat aurkitu baitaiteke kalean, azpimarratu dutenez.

Kuadrilla honetako lagunek 35 urte inguru dituzte, eta mutilak nagusi diren arren, emakume batek ere parte hartzen du haiekaz probei aurre egiteko: «Lehenengo urtetik talde mistoa gara. Zoritxarrez, azken urteotan neska bakarra dago, baina mutilak baino balio gehiago du!».



Azken urteetan 5-7 kide inguruk osatu dute Mandangax kuadrilla. © MANDANGAX

«Jaiak primerakoak dira, eta Kuadrillen Eguna ospakizunotako egunik onena da; horretan gogotsuago parte hartzen dugu»

Jai-batzordearen lana gorai patzen dute, eta hamarretik 11ko balorazioa egiten diote, «horien lana guztiz beharrezkoa» delako, baina azpimarratu dute oraindino ere jende gehiago behar dela festak aurrera eramateko, baita Udalaren laguntza gehiago ere.

Egitarauko ekitaldiren bat aukeratu behar balute zein izango litzatekeen galdetuta, argi dute: txosnetako txanda, «guztien laguntzarekin batera aurrera eramaten ditugulako». Ildo horretan, herritarrak eta bisitariak gonbidatu dituzte Itzubaltzeta/Romo eta Pinuetako jaietara gerturatzeko, eta auzokideak horietan parte hartzeko, «kuadrillekin harremanak indartzen ditugulako egun horietan». ◀



XVII. ROMOKO HERRI KROSA

Abuztuaren 1a Agosto 19:45ean Ganeta plazan
Izen-ematea / Inscripción: 17:30 - 19:30 Ganetan

HASZTEN elkarteak laguntza espezializatua emango die dibertsitate funtzionala duten pertsoneri. Interesatuak leudekeen pertsonak jar daitezela gurekin harremanetan gutxienez 3 egun lehenago.

La Asociación HASZTEN prestará apoyo especializado a las personas con diversidad funcional que lo soliciten. Las personas interesadas pueden ponerse en contacto al menos 3 días antes de la carrera.

699 609 588 info@haszten.org





Santo Domingo jaiak eta Bakailao Eguna

Berangoko azkenak

Abuztuaren 2tik aurrera, bost egun izango dituzte berangoztarrek udalerriko azken jaietz gozatzeko. Azken eguna, abuztuaren 11a, bakailaoari dedikatuko diote.

Abuztuaren lehenengo egunakaz, Berangoko jai nagusien txanda izango da. Hilaren 2an emango diote hasiera eta, lau egunez etengabean disfrutatzeko eskaintza egin ostean, etenaldia egin, indarrak batu eta abuztuaren 11n eztanda egingo du berriro ere jaiak Bakailao Eguna arrakastatsueguz. Lehen eguna kuadrillena izango da, eta taldeen jaitzierak eta erromeria izango dituzte gozagai motorrak berotzen hasteko; umeek eta kirolzaleek ere disfrutatzeko parada izango dute. Hortik aurrera, Berangoko Udalak beste hamaika ekintza jarriko ditu aukeran elizaren inguruan adin guztietako herritarrek ederto pasatzeko aukera izan dezaten. Besteak beste, Urrats eta Muxutruk erromeriak, Los Charros de Guajanato mariatxiak, Salve Regina —La Polla Records taldeari tributuak— musika-taldeen kontzertuak egongo dira, eta umeentzako parkeak eta dantza erakustaldiak ere ez dira faltako, beste askoren artean.

Gainera, Udalaren eskaintza osatu guran, Berangoko jai-batzorde herrikoiak beste hainbat jarduera antolatuko ditu abuztuaren 3rako, zapatarako, eta hilaren 11rako, Bakailao Egunerako. Santa Anakoen osterako indarrak berreskuratuta baldin bazaude, ez galdu aukera santodomingoetz gozatzeko! ◀

Abuztuaren 2tik 5era eta 11n

Abuztuak 2, barikua

- 12:00-20:00 Zurezko jolasak.
- 13:00-14:00 Apar-festa.
- 13:00 Bertso-saioa: Xabier Paya, Onintza Enbeita, Peru Irastorza eta Nahikari Ayo.
- 17:30 Kuadrillen jaitziera.
- 17:30 Lagunarteko futbol-7 partidak.
- 18:30 Betiko haur-jolasak.
- 19:00 Pilota.
- 20:00 Otxandategi Dantza Taldea.
- 20:00 Gazteentzako disko-festa, eskolan.
- 21:00 Hanburgesa-jana.
- 23:00 Erromeria: Urrats.

Abuztuak 3, zapatua

- 11:00 Binakako Pala Txapelketa.
- 12:00 Aldarrikapen txupina, jai-batzorde herrikoiak antolatuta.
- 12:00-14:00 Haur-parkea, Berango-Merana ikastetxean.
- 12:00-15:00 Herri-azoka, jai-batzorde herrikoiak antolatuta.
- 12:30 Berango Kantari.
- 13:00 Herri-kirol erakustaldia, jai-batzorde herrikoiak antolatuta.
- 17:00-20:00 Haur-parkea, Berango-Merana ikastetxean.
- 18:00 Txaranga, Sabino Aranatik.
- 19:00 Mariatxiak: Los Charros de Guanajuato.

- 20:30 Txokolate-edana.
- 22:00 Erromeria: Muxutruk.

Abuztuak 4, domeka

- 12:00 Meza.
- 13:00 Hamaiketako aitite eta amamentzat, Otxandategi Dantza Taldeko umeen eskutik.
- 16:00-20:00 Gazte-parkea, Berango-Merana ikastetxean.
- 19:00 60tik 80ko hamarkadetako musika.
- 20:00 Idi-probak.
- 23:00 Kontzertua: Lo dijo Andrés, Los Rodríguez en tributua.
- 01:30 Kontzertua: Salve Regina, La Polla Records en tributua.

Abuztuak 5, astelehena

- Kuadrillen eguna**
Egunean zehar Trikitia, paella-jana, Lander Oraá abeslariaren emanaldia eta erromeria.

Abuztuak 11, domeka

- Bakailao Eguna**
- 11:00-14:00 Ur parkea.
 - 13:00 Lapikoen aurkezpena.
 - 12:00 Aizkolariak, Hirugarren Mailako Euskadiko Txapelketako kanporaketak.
 - 17:00 Mus-txapelketa.
 - 16:00-18:00 Ur parkea.
 - 18:00-21:00 70etik 90ko hamarkadetako musika.



**FRONTOI
BERANGO
TABERNA**

Sabino Arana Kalea, 25 • BERANGO
Tel. 946 682 604

Iberkure ibilbidea, 1
BERANGO

Ambigu Moreaga




BATZOKIA

Sabino Arana 21
BERANGO

Gorliz Andra Mari jaiak

Jairik jai, atsedenik gabe

Gorlizko Andra Mariko jaiak dibertsioz eta herriko ekintzez osatutako lau jai-egun berezi ekarriko dituzte. Beraz, gorliztarrek ez dute atsedenik izango uda honetan!

Hamaika jarduera egingo dituzte Gorlizko andramarietan, abuztuaren 2tik 5era. Alabaina, herritarrentzako ezinbestekoak dira horietako hitzordu bi: XLIX. Tortilla Txapelketa eta LXII. Paella Txapelketa. Hala, denen aurrean erakutsiko dute nork dituen kozinatzeko abilezia handienak, betiere herriko giro ezin hobean. Horrez gain, umeentzako hainbat ekintza ere egingo dituzte, besteak beste, zezensuzkoak, ur-parkea eta diskofesta. Kirolaz gozatzeko parada ere izango dute XXXIV. Herri Krosagaz eta Herri Kirolakaz. Galduko duzu? ◀

Abuztuaren 2tik 5ra

Abuztuak 2, barikua

18:30 Txupinaren jaurtitzea eta kalejira.

19:30 Oliver Magoaren ikuskizuna.

20:30 Zezen mekanikoa.

22:00 Zezensuzkoa.

23:00 Kontzertua: Rock&Rollo.

23:00-00:30 «Paquetes bomba».

00:30-04:00 Mr Kull.

Abuztuak 4, domeka

10:30 LXII. Paella txapelketa.

13:00-13:30 Paellen aurkezpena.

18:00 Paellen sari-banaketa.

19:00-23:00 Zerbi Dantza Disco Show.

21:30 Zezensuzkoa.

Abuztuak 5, astelehena

11:00 Meza Agirre Andra Mariren ohorez.

11:45 Ohorezko aureskua.

12:45 Luntxa Ermita atarian.

17:30-18:45 Herri Kirolak.

20:00-21:30 Gaupasa bilbainadak.

Lemoiz Urizarko jaiak

Abuztuan, denak festan

Uda erdia festaz festa aritu ostean, abuztuaren 14tik 18ra Urizarko jaien txanda helduko da; andramarien uena. Hala, herriko giro ezin hobean ospatuko dituzte lemoiztarrek data berezi hauek.

Abuztuaren 14tik 18ra hamaika jarduera dituzte prestatuta herritarrek Urizarko auzoa pizteko. Halere, ekin-tzen ordutegiak oraindino ez daude zehaztuta. Horregatik, ekintzen nondik nora-koak jakiteko hiruka.eus atarira sar zaitezke: bertan programazio osoa eguneratuta aurkituko duzu. Halere, jakinarazitako ekintzen artean jatekoa nagusituko da aurten Urizarko jaietan: sardina-jana, saiheskia eta herri-bazkaria egingo dute auzotarrek. Gainera, hainbat txapelketa ere egingo dituzte euren artean mokoka egoteko: frontenis, tortilla, paella, mus, tute eta briska... Gogor lehiazteko astia izango dute! ◀

Abuztuaren 14tik 18ra

Abuztuak 14, eguaztenean

Txupinazoa.
Sardina-jana.
Mariatxiak.

Abuztuak 15, eguena

Meza eta ohorezko aureskua.
Herri-krosa.
Frontenis-txapelketako finalak.
Herri saiheski-jana.

Abuztuak 16, barikua

Meza eta hamaiketakoa.
Tortilla txapelketa.

Dja (zehaztu gabe oraindino).
Herri saiheski-jana.

Abuztuak 17, zapatua

Paella Txapelketa.
Mus Txapelketa.
Kontzertua txosnan (zehaztu gabe).

Abuztuak 18, domeka

Herri-bazkaria.
Tute- eta briska-txapelketa.
Txokolatada.
Zozketa eta bingo berezia.

Egitarau hau behin-behinekoa da; osorik HIRUKA.eus-en.



KULTURA AUZOETAN CULTURA EN LOS BARRIOS

LEIOA



UZTAILAK 8 JULIO
San Bartolome // 18:00

BAZEN BEHIN

Tiritirantes Circo Teatro (Castilla y León)



UZTAILAK 9 JULIO
Juan de Ajuriagerra plaza // 18:00

IPAR ZIRKO

Compañía Trotamundos (Euskadi)



UZTAILAK 10 JULIO
Manuel de Irujo plaza // 18:00

IPAR ZIRKO

Compañía Trotamundos (Euskadi)



UZTAILAK 11 JULIO
Dolores Ibarruri plaza // 17:30

REZICLONK

Compañía Turukutupa (Euskadi)

Erakusketa interaktiboa | Exposición interactiva



UZTAILAK 11 JULIO
Dolores Ibarruri plaza // 19:30

REZIKLANTES

Compañía Turukutupa (Euskadi)



UZTAILAK 13 JULIO
Sabino Arana // 12:30

ZIRKU TAILERRA

Zirika Zirkus (Euskadi)



UZTAILAK 13 JULIO
Sabino Arana // 18:00

AURKITU GABEKO ALT XORRA

Zirika Zirkus (Euskadi)



Konorterik Gabe 2023ko Olinpiaden irabazleak

«Espero dugu jaietako historian gogoratuko den pregoia izatea»

Iazko Astrabuduko jaietako kuadrillen arteko olinpiadak irabazi zituen Konorterik Gabe lagunartekak. Diotenez, «ohore handia» izan zen hori lortzea eta, aurten ere, historia egiteko asmoa dute.



10 urte bete zituen iaz Konorterik Gabe kuadrillak. © KONORTERIK GABE

Iaz, Astrabuduko jaietako kuadrillen txapelketa irabazi zenuten, nola gogoratzen duzue? Betidanik amestu dugun momentua izan zen, pozez eta ilusioz beterikoa. Kuadrilla gisa 10 urte bete eta gero, San Lorentzo jaietako irabazleak izatea lortu genuen, eta ohore handia izan zen guretzat. Harrotasun puntu batekin ere hartu genuen baita ere, gure auzo maitearen parte garelako.

Nola lortu zenuten irabaztea? Batez ere, kuadrillaren elkarlana izan zen gure garaipenaren arrazoi nagusia. Era berean, gure esperientzia eta iraunkortasunak asko lagundu zigun ere.

Aurten pregoia irakurriko duzue, zer esango duzue? Hori sorpresa da, baina espero dugu jaietako historian zehar gogoratuko den pregoia izatea. Etor zaitezte abuztuaren 7an Astra-

buduara eta ikusiko duzue. Gainera, diskurtsoaz gain, beste gauzatxo batzuk ere prestatu ditugu.

Zer da Astrabuduko jaiak gehien bereizten dituen? Jendearen elkartasuna eta auzoaz harro sentitzea.

Zerbait aldatu gura zenukete? Orain arte, izan dugun giro hurbila mantendu nahi dugu eta, horretarako, Astrabuduko gazteen eta nagusien laguntza behar dugu. Horregatik, gustatuko litzaiguke herriko kuadrilla berriak jaietako olinpiadetan parte hartzen ikustea.

Zein da aurten jaietarako zuen asmoa? Pasa den urtean lortu genuena errepikatzea, baina irabazteko nahi horren presioa alde batera utzita. Garrantzitsuena izango da jaietz gozatzea eta jendearekin bost egun polit igarotzea. ◀



Badator

Abuztuaren 5etik 11ra

Abuztuak 5 eta 6

Umeen Eguna.

Abuztuak 7, eguaztena

- 11:30-14:00 Txikilekua, San Lorentzon.
- 11:45 Txikikalejira, Ulpianogaz, trikitilariakaz eta txistulariakaz, Josu Murueta plazatik.
- 12:00 Ongietorria jaioberriei, Mendiguren plazan.
- 12:15 Photocall Ulpianogaz, Mendiguren plazan.
- 18:30 Gaiteroen igoera Hiru Gurutzetara.
- 19:00 Kuadrillen jaitziera Hiru Gurutzetatik, nagusien eta txikien olinpiada.
- 20:30 Txupinaren jaurtitzea eta pregoia Konorterik Gabe kuadrillaren eskutik (2023ko kuadrillen olinpiadaren irabazleak), Josu Murueta plazan.
- 20:30 Txosnen irekiera, Mendiguren plazan.
- 20:45 Larrain-dantza gaiteroen eskutik, Mendiguren plazan.
- 22:00 Erroneria: Urrats, Mendiguren plazan.
- 22:30 Txitxarrillo, Josu Muruetan plazan.
- 23:30 Erratza-lehiaketa, Josu Murueta plazan.
- 01:30 DJ Ronni Ross, Mendiguren plazan.

Abuztuak 8, eguena

- 11:00 Txupinaren jaurtitzea.
- 11:00 Kalejira, Iparraize txistulariakaz.
- 11:30-14:00 Txikilekua, San Lorentzon.
- 11:00 Tortilla-lehiaketaren izen-ematea, anbulatorio zaharrean. Nagusien olinpiadarako puntuagarria.
- 13:00 Tarta-lehiaketaren izen-ematea, anbulatorio zaharrean. Txikien olinpiadarako puntuagarria.



Ulpiano!

- 13:30** Froga X, nagusien olinpiada.
- 15:00** Tortilla-lehiaketako sari-banaketa, anbulatorio zaharrean.
- 18:00** Kale-musika, Mendiguren plazan.
- 18:30** Txanpiñoi banatzea, EAJren eskutik eta Fruteria Oscar-en laguntzagaz, Batzokian.
- 20:00** Urban Tones, Mendiguren plazan.
- 22:00** Nagusien olinpiadako playback-a, Mendiguren plazan.
- 00:00** Erromeria: Nonbait, Mendiguren plazan.

Abuztuak 9, barikua

- 10:30** Txupinaren jaurtitzea.
- 11:00** Kalejira, Iparraize txistulariakaz.
- 12:00** Txikien olinpiaden froga: jantzi merkea.
- 14:30** Herri-bazkaria, Mendiguren plazan.
- 17:00** Txikilekua eta zezen mekanikoa, San Lorentzon.
- 17:30** Ginkana, Mendiguren plazan.
- 18:30** Orkestra elektrotxaranga, herriko kaleetatik.
- 20:00** Kontzertua: Manolenta, Etxegorri tabernan.
- 21:00** Kontzertua: Tierra Kritikal, Mendiguren plazan.
- 22:00** Kapela-lehiaketa, Josu Murueta plazan.
- 23:00** Kontzertua: Kresala, Mendiguren plazan.
- 02:30** DJ Kris Alava, Mendiguren plazan.

Abuztuak 10, zapatua

- 11:00** Txupinaren jaurtitzea.
- 11:00** Kalejira gaiteroakaz.
- 11:00** Paella-lehiaketako izen-ematea.
- 11:00-14:00** Txikilekua eta apar-jaia, San Lorentzon.
- 12:00** Meza nagusia, San Lorentzo elizan.
- 13:00** Udal Musika Bandaren kalejira.

- 13:00** Nagusien olinpiadako froga, Mendiguren plazan.
- 13:00** Soka aurrekua, Trabudu Dantzari Taldearen eskutik.
- 13:30** Paellen aurkezpena, anbulatorio zaharrean.
- 16:00** Paella-lehiaketaren sari-banaketa, anbulatorio zaharrean.
- 17:00** 15. Igel-toka Txapelketa, Coppi tabernan.
- 18:30** Dantza-alardea, Trabudu Dantzari Taldearen eskutik, Mendiguren plazan.
- 20:30** Kuadrillen afaria, anbulatorio zaharrean.
- 22:00** Kontzertuak: Kamikaze (Amaral taldeari tributua), La Band Gogh (La Oreja de Van Gogh taldeari tributua) eta Maquillaje (Mecano taldeari tributua), Mendiguren.
- 23:00** Dantzagarriak, Josu Murueta plazan.
- 02:00** Kontzertua: Etxepe, Mendiguren plazan.

Abuztuak 11, domeka

- 09:00** 27. Arrantza Lehiaketa.
- 09:00** Umeentzako arrantza-tailerrak
- 11:00** Txupinaren jaurtitzea.
- 11:00** Marmitako-lehiaketako izen-ematea, anbulatorio zaharrean.
- 11:30-17:00** Txikileku: Olgetan Solas, San Lorentzon.
- 11:30** Kalejira, Iparraize txistulariakaz.
- 12:30** Herri kirolak, Bizkaiko Herri Kirol Federazioa eta Erandio Kirolak, Mendiguren plazan.
- 13:30** Marmitakoen aurkezpena, anbulatorio zaharrean.
- 17:00** 15. Igel-toka Txapelketaren finala, Coppi tabernan.
- 18:00** Kontzertua: Los 5 Bilbainos, Josu Murueta plazan.
- 20:00** Txikien olinpiadako playback lehiaketa.
- 23:00** Olinpiaden sari-banaketa, Josu Murueta plazan.
- 23:00** Ulpianori agurra eta jaien amaiera.

Getxo San Lorentzo Azoka

Festarik festa, tartean, merkaturako parada

Urtero legez, Algortako erdiguneko plazak azoka bilakatuko dira abuztuaren 10ean, San Lorentzo Egunean. Zapatu horretan, 10:00etatik hasita, eta 14:30ak arte, inguruko eta Euskal Herri osoko baserrietatik zuzenean ekarritako hamaika produktu eskuratzeko aukera izango dute bisitariek.

Aurten ere, Algortako San Nikolas eta Biotz Alai plazak azoka bilakatuko dira abuztuaren 10ean, San Lorentzo Egunean. Zapatu horretan, 10:00etatik hasita, eta 14:30ak arte, inguruko eta Euskal Herri osoko baserrietatik zuzenean ekarritako hamaika produktu eskuratzeko aukera izango dute bisitariek.

60 saltoki eta txosna bi jarriko dituzte Algortako erdiguneko plaza bi horietan. Postuetan, nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuak bakarrik saldu ahalko dira, eta, gisa horretako jai orotan bezala, ez dira faltako taloa, sagardoa, txakolina edo bestelako hamaika produktu dastatzeko aukera. Halaber, giroa alaitzeko trikitilariak eta gaiteroak ere egongo dira.

Eguna amaitzeko, Bihotz Alai abesbatza-
ren doinuek egingo diote agurra San Lorentzo azokaren baitako jaiari, aurten, Muxikebarri



Baserrietako lehen mailako askotariko produktuak erosi ahal izango dira azokan.

Azokaren ordutegia
10:00etatik 14:30era
artekoa izango da.

Antzokian, 22:00etatik aurrera. Kontzertuaz gozatzeko, sarrera-gonbidapenak daborduko eskura daitezke Muxikebarri Antzokian bertan eta Romo Kultur Etxean. ◀

Gorliz San Lorentzo jaiak

Gandiako auzoa giro apartan murgilduko da abuztuaren 10ean

Gorlizko Gandia auzo txikiak festa handia gordetzen du bere barrenan. Horren erakusle da urtero antolatzen dituzten ekintzak, eta aurten ez da gutxiago izango. Horregatik, abuztuaren 10ean, zapatuan, goiz-goizetik gauera arte jai giroan murgilduko dira gorliztarrak. 11:00etan txupina botako dute, eta, 14:00etan, saiheski-parrillada dastatu ahalko dute. Gainera, gorputza astintzeko aukera ere izango dute 20:00etatik 24:00etara arte egongo den Dj erromeriagaz. Ez galdu hurbiltzeko aukera! ◀



Abuztuak 10, zapatua

11:00 Txupina.

13:00-17:00 Ur-parkea umeentzat.

14:00 Saiheski-jana + sagardoa.

20:00-24:00 Dj erromeria.

22:00 Zezensuzkoa.

Potro Handi Portu Zaharreko 2023ko jaietako kuadrilla irabazlea

«Ilusioa egiten digu aurten Txo panpina gurekin eramateak jaietan»

Ondo gordeta dute oroimenean Potro Handi kuadrillako lagunek Portu Zaharreko jaietako kuadrillen txapelketa irabazi zuten momentua. Garaikurra altxatzerakoan bizi izandakoak partekatu dizkigute.

IKER RINCON MORENO ▶

Egia esan, ahaztezina izan zen». Halaxe gogoratzen dute Potro Handi kuadrillako mutilek 2023an Portu Zaharreko kuadrillen txapelketako garaikurra altxatu zuten unea. Azaltzen dutenez, 15 urte dira festetan parte hartzen dutela, eta asko desiratzen zuten txapela janztea: «Txapelketa beste kuadrilla batek irabaziko zutenaren zurrumurruak zabaldu ziren azken unean, eta Potro Handi izena iragarri zutenean, emozioa deskribaezina izan zen».

Diotenez, duela urte batzuk playback-a zuten probarik «gogorrena», jaitsiera prestatzeko egindako inbertsioen ostean, «denbora eta ideia gutxi» zutelako horri aurre egiteko. Hala ere, aitortzen dute gaur egun antzara-proba dutela zerrenda beltzean, jaietan parte hartzen duten 20 bat lagunetatik inork ez duelako egin gura. Gogokoena, aldiz, kuadrillen jaitsiera dute, festen lehenengo egunean. Gainera, uste dute proba hori ondo eginez gero, txapelketa irabazteko aukerak daudela: «Ondo hastea garrantzitsua da motibatuta jarraitzeko». Gogoratzen dutenez, 2023an ondo pasatzea zuten helburu nagusi, «beti beza-



29-30 urte arteko 20 bat lagunek parte hartzen dute jaietan. © POTRO HANDI

«Seguruenik aurrekontu falta dela eta, ez da lan erreza izango, baina kontzertu nabarmenagoak faltan botatzen ditugu»

la». Hala ere, aitortzen dute irabazteko guria beti dagoela. Aurten, baina, Txo panpina eurakaz eramateagaz nahikoa dutela dirudi, ilusioz egingo dutela azpimarratzen dute, eta iragarri dute aurtengoa izan daitekeela azken parte-hartzea.

Jaiei dagokienez, egunez zein gaez gozatzten dutela diote, eta oso balorazio ona egiten diete festei, probak «ezberdinak eta dibertigarriak» direlako. Jai-batzordeak egiten duen lan «itzela» aitortzen duten arren, uste dute kontzertu ezagun gehiago behar direla, eta iaz Gazte Txosnagaz izandako jarrera deitoratu dute, agertokia jartzea debekatu zitzaielako, «gazteek lan handia egiten dutelako jaiak girotzeko, herria animatzeko eta giro osasuntsua sustatzeko». ◀

Marsun
ESTILISTAS

ORDUTEGIA
Asteartetik ostiralera 9:30etik 19:00etara
Larunbatak 9:00etik 14:00etara
Astelehenak itxita
Astearteak eta ostegunak jubilatuta eguna

944 608 222
688 867 278

Alangoeta, 6
48990 Algorta
www.marsunestilistas.es

PORTU
ZAHARRA
TABERNA

Portu Zaharra, 35,
48991 Getxo

@portuzaharrataberna

TRIKU TABERNA
Pintxoak eta askoz gehiago!

Ondo pasa jaietan!

Salsidu Etorbidea • ALGORTA

Txo, hemen dira Portu

Abuztuaren 9tik 12ra

Abuztuak 9, barikua

- 12:00** Txupinaren jaurtiketa eta umeen kuadrillen jaitsiera, Kasino plazatik abiatuta, Ku-Klux fanfarreagaz, Portura arte.
- 13:15** Eusko Diskoteka Paco eta Urtza taldeagaz, Portuko plazan.
- 17:00** Txupinaren jaurtiketa eta kuadrillen jaitsiera Algortako Etorbidetik hasita. 2023an irabazi zuen Potro Handi kuadrilla izango da lehena jaisten Txoa eramateko.
- OHARRA: Portura hurbiltzeko orduotan, eta kuadrillen jaitsiera ez oztopatzeke, egin ezazue Ereagatik edo San Nikolas kaletik.**
- 18:00** Boxeo ikustaldia, Izarrak Boxing klubeko txosnak antolatuta.
- 19:30** Sardina-jana, Jenaratxun.
- 21:00** La Tropa, Portuko plazan.
- 21:30** Umeentzako zinema, Pedro Bilbao Doktoarearen plazan.
- 22:00** Pregoiaaren irakurketa, 2023an irabazi zuen Potro Handi kuadrillaren eskutik, agertoki nagusian.
- 22:30** Kontzertuak agertoki nagusian.

Abuztuak 10, zapatua

- 11:00-14:00** Umeei eta gazteei begirako ekintzak, beheko errepidean. Ludoteka (1-3 urte), puzgarri ertaina (2-5 urte), puzgarri handia (5 urtetik gora) eta pedaletako kotxetxoak (edozein adin).
- 10:30-12:30** Umeentzako tailerrak, Argia Fundazioaren eskutik, beheko errepidean.
- 11:00** Rugby Tokata Lehiaketa, zelaian, Getxo Rugby taldearen eskutik.
- 11:30** Umeen estropada ergometroetan, Arrauneko txosnaren aurrean, Getxo Arraun taldeak antolatuta.
- 12:00** Txikienezako hastapenak eta minitenisa, Getxoko Tenis Playa taldeak antolatuta.
- 12:00-18:00** Bazkaria, Gazte Txosnan.
- 13:00** Kantu-poteoa, Portuko plazan.
- 17:00** Buruhandien eta txistularien jaitsiera, Agurra taldeagaz, Tellagorritik Portura.
- 17:00** Dantzak murrutzar handian, Itxas Argiak antolatuta.



Iñaki Bitxitegia



Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41



EGUIZABAL
PUEBLA
Hartz Klinika

Klinika tradizionaletik harago goaz

Basagoiti Etorb. 38
48991 GETXO

946 62 06 59



clinicadental@eguzabalypuebla.com


UNAI
TABERNA · JATETXEA
ALGORTA - GETXO

944 661 661
Algortako Etorbidea, 96

Zaharreko jaiak!

- 18:00** Bits-festa, beheko errepidean.
- 19:00** Antzara-jasoaldiak, itsasaldi hilak.
- 19:30** Sardina-jana, Jenaratxun.
- 21:30** Zezensuzkoa, agertoki nagusiaren atzean.
- 21:30** Umeentzako zinema, Pedro Bilbao Doktoarearen plazan.
- 22:30** Kontzertuak agertoki nagusian.

Abuztuak 11, domeka

- 11:00-14:00** Umeei eta gazteei begirako ekintzak, beheko errepidean. Ludoteka (1-3 urte), puzgarri ertaina (4-8 urte), zezen mekanikoa (5 urtetik gora) eta pedaletako kotxetxoak (edozein adin) edo rokodromoa.
- 11:00-13:30** Umeentzako jolasak, Portuko plazan.
- 13:00** Sokamuturra, hondartzatxoan, itsasaldi hilak.
- 15:00** Bazkari feminista, Bilgune Feministaren txosnan.
- 17:00** Buruhandien eta txistularien jaitsiera, Agurra taldeagaz, Tellagorritik Portura.
- 17:00-19:00** Skate-tailerra eta erakustaldia, errepidean, La Kantera Skate eskolaren eskutik.
- 19:00** Zumba Rosi, Ylenia eta Ritagaz, agertoki nagusian.
- 19:30** Umeentzako nasapuntakoa eta jostailuzko ahatetxoan askatzea, murrutzar txikian; eta, ondoren, nagusientzako nasapuntakoa eta salto-lehiaketa murrutzar handian.
- 19:30** Sardina-jana, Jenaratxun.
- 19:30** Bertso-saioa, Portuko plazan.
- 21:00** Easy Ironic, Portuko plazan.
- 21:00** Kuadrillen erakustaldia, agertoki nagusian.
- 21:30** Zezensuzkoa, agertoki nagusiaren atzean.
- 21:30** Umeentzako zinema, Pedro Bilbao Doktoarearen plazan.



Abuztuak 12, astelehena

- 09:30** Marmitako Txapelketaren izen-ematea.
- Oharra, ezin da agertoki nagusia erabili marmitakoak egiteko.**
- 11:00** Buruhandien eta txistularien jaitsiera, Agurra taldeagaz, Tellagorritik Portura.
- 12:30** Marmitakoak entregatzeko hasiera, 14:00ak arte, Etxetxun.
- 18:00** Bertsolariak, Portuko plazan.
- 18:30** Marmitako Txapelketaren sari-banaketa, Portuko plazan.
- 21:00** Kuadrillen Txapelketako sari-banaketa, agertoki nagusian.
- 22:30-02:30** Kontzertuak, agertoki nagusian.

Abuztuak 13, martitzena

- 06:30** Txoaren erreketeta eta jaiari amaiera emateko traka, murrutzar handian.



Egitarau hau behin-behinekoa da; jaiak hurbildu ahala behin betikoa emango dugu HIRUKA.eus-en

AZKAYO

1980TIK ERAIKUNTZAREN MUNDUAGAZ LOTUTA



Ilusinoz beteta egiten dogu behar gehien atsegin dogun horretan.




hirigintza • arkitektura • ingenieritza zibila

Basagoiti etor. 69 - 1.solairua ALGORTA

www.estudiok.es

944911332



Erandio Asuako eta Erandiogoikoko jai-batzordeak

«Jaietan parte hartzea herria egiteko beste modu bat da»

Bata bestearen ondoan daude Asua eta Erandiogoikoa, eta ez bakarrik fisikoki, bertakoek harreman hurbila ere baitute. Hori auzo horietako jaien antolakuntzan nabaritzen da.

ANDER ZARRAGA GOIRIZELATA ▶

Asua eta Erandiogoikoko jaiak antolatzen arduratzen den jai-batzordea bakarra da? Ez, jai-batzorde desberdin bi gara. Bateko kide batzuk bestean ere bagaude, baina bietako bakarrean dagoenik ere badago. Auzo bien arteko harremana estua baita, hurbiltasun geografikoagatik.

Nolakoa ari da izaten jaiak antolatzeko lana? Momentuz, ematen du dena ondo doala, kontrolpean dugula, baina hori jaietan ikusi beharko da. Zailtasunik handiena dirua nola kudeatu erabakitzea izaten ari da; dena igo baita eta asko ari gara nabaritzen.

Nola definituko zenituzkete auzo horietako jaiak? Asua oso auzo berezia da, bertako jendeak nortasun berezia du eta jaiak horren kutsua dute. Jaiak eurak nahiko sinpleak dira, ez dago beste munduko ezer.

**Andra Mari jaiak**

Lerrook idazteko orduan, Erandiogoikoko Andra Mari jaien egitaraua argitaratu gabe dago oraindik. Festok abuztuaren 14 eta 15ean ospatuko dituzte eta horien egitaraua QR kode honek daraman orrian aurkitu daiteke.



Nortzuk osatzen duzue jai-batzordea? Adin ezberdinetako kideak gaude: 40 urtetik gertu daudenetatik 25 urteren bueltan daudenetara. Denak gara Asua eta Erandio ingurukoak eta, bertan bizi ez garen arren, bizitza inguru horretan egiten dugu guztiok.

Erandiogoikoko jai nagusiak Gorpuzti jaiak dira, baina abuztuaren Andra Mari jaiak ere ospatzen dituzue, zer ari zarete prestatzen? Andra Mari jaiak txikiagoak dira Gorpuzti jaiak baino. Urtero-urtero eskema bera izaten dute: abuztuaren 14an, erromeria gauean eta, 15ean, kuadrillen arteko paella-lehiaketa. Herriko kuadrillak batzea izaten da helburua, eta normalean lortu egiten da.

Zer esango zeniekete auzokideei festetan parte hartzeko? Jaietan parte hartzea herria egiteko beste modu bat dela. Herri-nortasuna indartu egiten dela eta zerbaitetan parte hartzeak beti laguntzen duela komunitatearen parte sentitzen, hori norbanakoarentzat oso aberasgarria izan ohi da.

Zer gustatuko litzaizueke egitea jaietan? Ez dugu anbizio handiegirik. Jai xumeak eskaintzen ditugu, kontzertu handirik gabe, esaterako, baina hori da gurean eskatzen dena, eta horri erantzuten saiatzen gara. ◀

Erandio | Leioa Santimamiko jaiak**Ohiturak mantentzen**

Indarberrituta datoz Santimamiko jaiak. Lehen, Erandio eta Leioa artean antolatzen zituzten, txandaka, baina, orain, udalerrri bietako herritarrek osatutako jai-batzordeak hartu du zeregina. Duten erronka ez da erraza izango: batetik, aurten ere Bilboko jaiakaz kointzidituko dutelako eta, bestetik, lehen ekintzak egiteko zuten landa zabala aurten ere ezin izango dute erabili. Hala ere, auzokideak batzeko eta ohiturari eusteko bi eguneko egitaraua prestatu dute abuztuaren 17 eta 18rako: Santimami eta Santimamitxu. ◀

Abuztuak 17 eta 18**Abuztuak 17, zapatua**

- 10:00 Kalejira.
- 12:00 Meza.
- 12:30 Hamaiketakoa, Leioako Txikiteroek alaituta.
- 17:30 Mus-txapelketa.
- 20:00 Musika eta parrilla-jana.

Abuztuak 18, domeka

- 10:00 Kalejira.
- 12:00 Meza.
- 13:00 Igel-toka Txapelketa.
- 14:30 Herri-bazkaria.
- 17:30 Mus- eta briska-txapelketa.
- 20:00 Musika emanaldia

Urezarantzako jaiak

Tortilla eta sukalki onenaren bila Urezarantzako jaietan

Abuztuaren 17 eta 18ko aste-akabuan festaz handikiro gozatuko dute Gorlizen, herriko kiroldegan eta Okaratzun.

Tradizio luzeko txapelketa da Gorlizko Urezarantzako sukalki-txapelketa. Zehazki, 52 urte daramate hori ospatzen eta, beraz, lehiaketa irabazteko erronka handia da ere. Halaber, hori ez da izango jaietako protagonista bakarra, festa on batzuk ezin direlako disfrutatu bere tortilla-txapelketa berezirik gabe. Janaz gainera, disko-gaua, zaku-lasterketak, txingak, trikitalariak eta umeentzako ur-parkea ere izango dute herritarrek. Ekintza guztiak bi tokitan egingo dituzte: kiroldegan eta Okaratzun. Has dadila festa Urezarantz! ◀

Abuztuak 17 eta 18

Abuztuak 17, zapatua

Kiroldegan

- 12:00** Txupinaren jaurtitzea.
- 12:30** Ur-parkea umeentzat.
- 13:00** Luntxa danontzat trikitiagaz girotuta.
- 16:30** Tute-txapelketa.
- 17:30** Tortilla-txapelketa.
Tortillen sariak: 30 euro, 20 euro, 10 euro eta 5 euro.
- 20:30** Disko-gaua.
- 21:30** Zezensuzkoa.

Abuztuak 18, domeka

Okaratzun

- 10:00** LII. Sukalki Txapelketa.
- 12:00** Trikitalariak.
- 14:30** Lapikoen aurkezpena.
- 17:00** Sukalki Txapelketaren sari-banaketa.
- 18:00** Jolasak: zaku-lasterketak, aulkiena, txingak...



Ondo eta erantzukizunez ospatu jaiak.



Leioa San Bartolome jaiak

Berritasunakaz datoz Leioako San Bartolome auzoko jaiak

Jai-batzordeko kideek aurreratu dutenez, barikuan, jaietako bigarren egunean, herri-krosa eta erromeriaren aurretik rock kontzertua egongo dituzte lehenengoz.

San Bartolome auzoko jai-batzordeko taldeak hainbat urte daramatza jaiak antolatzen, eta gutxi izan arren, urteroko egitarauan gauza berriak txertatzen saiatzen dira. Aurten, abuztuaren 23an, goizean, herri-krosa egingo dute auzotik eta Peruri inguruko baserrietatik, eta, arrastian, Arene 6 taldearen rock kontzertua egongo da Bidean taldearen erromeriaren aurretik.

Horrez gain, tradizio handiko marmitako-lehiaketa ere ez da faltako; aurtengoa 57. txapelketa izango da eta, urtero legez, jendetza hurbilduko dela aurreikusitako jai-batzordeko kideek. Gainera, egun horretan, lehiaketako platerak dastatzeaz arduratuko diren epaileek umeentzako marmitako *masterclass* bat ere eskainiko dute. Antolatzaileek azaldu dutenez, jarduera horrek hain arrakasta handia duenez, parte-hartzaileen kopurua mugatu behar izango dute. ◀

Abuztuaren 22tik 25era

Abuztuak 22, eguena

- 19:00 Txupinaren jaurtitzea eta jaien hasiera. Ostean, Orkresta elektrotzaranga eta mozorroak.
- 21:00 Sardina-jana.
- 22:30 Erromeria: Nonbait.

Abuztuak 23, barikua

- 11:00 Poteo musikatua txosnetan.
- 11:30 Herri-krosaren hasiera auzoko kaleetatik.
- 13:00 11. Igel-toka Lehiaketa.
- 18:00 Puzgarriak.
- 18:30 Asto-probak.
- 19:30 18. Tortilla Txapelketako izen-ematea.
- 21:00 Tortillen aurkezpena.
- 21:30 Kontzertua: Arene 6.
- 23:00 Erromeria: Bidean.

Abuztuak 24, zapatua

- Goizetik, Etxebarria Aita & Semea trikitilarien doinuak.
- 10:30 Euskal produktuen azoka.
- 11:30 Umeentzako talo-tailerra.
- 12:00 Meza eta ohorezko aureskua.

- 13:00 Kantu-poteoa.
- 15:00 Herri-bazkaria.
- 19:30 Perurenaren erakustaldia.
- 21:00 Zezen mekanikoa.
- 23:00 Erromeria: Urrats.

Abuztuak 25, domeka

- Zuzterrak taldearen musika goizetik.
- 11:00 57. Marmitako Txapelketa.
- 11:30 Umeentzako marmitako *masterclass*.
- 13:30 Apar-jaia.
- 13:30 Kazolen aurkezpena.
- 18:00 Sari-banaketa.
- 18:30 Asto-probak.
- 19:00 Zumba.
- 20:30 Txokolatada eta jaien amaiera.



Urduliz Nekazaritza Azoka

Nekazarien munduko produktu onenak erosteko aukera ezin hobea

Abuztuaren 24an, zapatuan, nekazaritza produktu onenak erosteko eta dastatzeko aukera izango dute urduliztarrek. Izan ere, hilaren amaierako aste horretan ospatuko dute urtero egiten duten Nekazaritza Azoka, Andra Mari jaien barruan programatzen dena.

Goiz osoan zehar irekita egongo da merkata, zehazki, 10:00etatik 14:00etara, Urdulizko Antsonekoa plazan. Bertan, euskal baserrietako uztarik onenetatik ateratako



produktuak eskuratu ahal izango dituzte herritarrek. Gainera, tokiko produktuen erakusketa eta barazkien, landareen zein fruten lehiaketak egingo dituzte.

Halaber, denon gozamenak kontuan hartuta, haurrentzako tailerrak ere egingo dituzte, eguerdiko 12:00etatik 14:00etara. Beraz, jaiaren erdigunean, landa-ingurura bueltatzeko parada izango dute herritarrek, tokian tokiko produktuen kontsumoa sustatuz eta tradizioari ere lekua eginez. ◀

Miren Bego Intxaurtieta eta Begoña Iburgurengoitia Madalentu ohiak

«Jendea asko pozten da aukeratua zu izan zarela ikusten dutenean»



Jai bakoitzak bere berezitasunak ditu; Plentzian, Antolintxu eta Madalentu dituzte, eta protagonista bihurtzen dituzte herritar nabarmenenak.

TESTUA ETA ARGAZKIA: ANDER ZARRAGA GOIRIZELAIA ▶

E gondako lehen Madalentu izan zen Begoña Iburgurengoitia. 2007. urtean izan zen hori, eta kontatzen duenez, ustekabeen harrapatu zuten: «Aspalditik zegoen Antolintxu, eta bazen ordua emakumeek ere protagonismoa izateko festetan». Hasieran, ezetz esan zielela aitortzen du, «baina konbentzitu egin ninduten bikote ona izango nuela esanez, eta, azkenean, herriak oso ondo hartu zuen emakume bat ere izatea jaietako protagonista». Bere lehengusua izan zen urte horretako Antolintxu, eta azpimarratzen du garrantzitsua dela bikotekideagaz ondo eroatea, «jai guztiak elkarregaz pasatzen dituzulako». Iburgurengoitia ezaguna zen herrian, osasun-langilea izateaz gain, hiribilduko lehen ikastolako presidentea ere izan zelako; gainera, duela hamar urte inguru, lehenengo Madalentu txiki bere iloba ere izan zen.

Bego Intxaurtieta Plentziako eskolako irakaslea izan zen 40 urtez, eta, herrian denek ezagutzen dutenez, 2015ean egokitu zitzaion Madalentu izatea. «Oso esperientzia polita da, baina gogorra ere bai, egon behar zarela alde batetik bestera eta jaietan egiten diren ekintza guztietan parte hartu behar duzulako; txarrena, egun guztia buruan zapia eraman behar izatea».

«Jendearen errekonozimenduak asko animatzen zaitu, eta jende nagusiak asko eskertzen du beraiengana hurbiltzea; gainera, jendea poztu egiten da zu zarela jakitean», gaineratu du Iburgurengoitia.

«Aspaldi, Francoren garaian, Juanita *La recadista* eta Sabino Arriaga itsasgizona izan ziren jaietako lehen pertsonaiak, herrian oso ezagunak baitziren», gogoratu du Intxaurtieta, eta, elkartea sortu aurretik, Bittor Laurodoitiaren Udalak antolatzen zituela Antolintxuak.

Gaur egun, emakumeak zein gizonak berdin dira elkarreko kide, eta, uztailaren 20an, Madalentu izandako guztiak elkartuko dira beste behin, Madalenuko jaiak abiaraziko dituen txupina botatzeko; izan ere, Madalenu Deuna da Plentziako patroia, eta jaiegun horietako protagonistak Madalentuak. ◀

Azkenean, hemen dira Pl



Plentziarrek euren ohitura propioak dituzte, eta ez dago jaiak baino une aproposagorik hori frogatzeko; urtero legez, herritarrek bizilagunen artean aukeratu beharko dituzte San Antolin jaietako protagonistak izango direnak.

Aurten, Plentziako jaiak abuztuko azken astean ospatuko dituzte, eta ospakizunek iraileko lehen egunak ere hartuko dituzte; hau da, abuztuaren 28tik irailaren 2ra izango dira festak. Hala ere, aldez aurretik, aurtengo Madalentxu, Antolintxu eta euren parekide gazteagoak nortzuk izango diren jakinarazteko ospakizuna ere egingo dute abuztuaren 20an. Pertsonaia horiek bozka bidez aukeratzen dituzte urtero, hiribilduan zehar jartzen dituzten hautetsontzietan herritar esanguratsuenen izenak sartuz.

Horrez gain, Plentziako jai-batzordeak hainbat jarduera prestatu ditu hiribilduan ezagunenak diren jaiak behar bezala ospatzeko: lehiaketa gastronomikoak, kontzertuak, euskal jantzi tradizionalen desfilea, umeentzako jarduerak... ◀

Abuztuaren 24tik irailaren 2ra

Abuztuak 24, zapatua

Antolintxu eta Madalentxu Eguna

- 11:00** Kalejira, Plazatxotik hasita Erribera kalean zehar eta Eliz plazara.
- 12:00** Antolintxu eta Madalentxuen ohorezko meza.
- 13:00** 2024ko Antolintxu eta Madalentxuren aurkezpena.

Abuztuak 28, eguaztena

- 14:30** Herri-bazkaria.
- 17:45** Harrera Antolintxu eta Madalentxuri.
- 18:00** Txupinaren jaurtitzea, Andra Marirako igoera eta aurreksua.
- 20:00** Dantza-saioa, Itxas Eder taldearen eskutik, Ontziola plazan; euria bada, Jai Alai frontoian.
- 22:00** Zezensuzkoa, Ontziola plazan.
- 23:00** Gau zuria, Urrats erromeriagaz.

Abuztuak 29, eguena

- 12:00** Molto motorren sari nagusia (0-4 urte), Jai Alai frontoian. Partaideek eraman beharko dituzte motorrak.
- 13:00** Piraten bits-festa. Ez ahaztu mozorroa!
- 18:00** Nagusientzako bingo-arratsaldea.
- 19:00** San Antolin Pala Txapelketa, emakumezkoen eta gizonezkoen finala, Jai Alai frontoia.
- 21:30** Zezensuzkoa, futbito zelaian.
- 22:00** Helduen Playback Lehiaketa.

Abuztuak 30, barikua

- 10:00** Tortilla-, paella- eta entsalada-lehiaketetako izen-emateak.
- 12:30** Entsaladen aurkezpena.
- 13:00** Tortillen aurkezpena.
- 13:30** Paellen aurkezpena eta sari-banaketa.
- 19:00** Helduen Mozorro Lehiaketa.

ILEA PAINDEGIA
UNISEX

Erribera Kalea, 23, Plentzia
946 77 41 47

KOPISTERIA 2001 Urtetik

PLENTZIA

kopisteriaplentzia@yahoo.es

☎ 94 677 10 04

Erribera, 26 (Lonja)

48620 - PLENTZIA

Jositabestu

Itsasbide 19 - Gorliz 48630

Konponketak, jantzi-giltza eta moda-ahagarriak

WhatsApp 747 494 717

Instagram @jositabestu

entziako sanantolinak!

- 21:30 Baflepoteoa.
- 22:00 Zezensuzkoa.
- 01:00 DJ Malakias MX3

Abuztuak 31, zapatua

- 10:00 52. Marmitako Lehiaketan izen-ematea.
- 10:30 Plentzia La Gallarda 5. Familia Kros herrikoia. Arturo Peña Memoriala.
- 13:30 Marmiten aurkezpena.
- 16:30 Sari-banaketa.
- 17:00 Olinpiadak futbito zelaian.
- 19:30 13. Plentzia Kantari, Plentzia Kantaguneren eskutik.
- 19:30 Umeen Playback Lehiaketa.
- 22:00 Zezensuzkoa, futbito zelaian.
- 22:00 80-90 hamarkadako kontzertua: The Hottubes.
- 01:00 Zipote Records.

Irailak 1, domeka

- 09:00 Eskualdeko 130. Nekazaritza Azoka.
- 11:00 Dina.
- 12:00 Euskal Jantzi Tradizionalen erakusketa, Plazatxotik hasita.
- 19:00 Umeen mozorro lehiaketa.
- 20:30 9. San Antolin Bertso-saioa: Aroa Arrizubieta, Julio Soto, Beñat Gaztelumendi eta Onintza Enbeita, eliz plazan.
- 22:00 Zezensuzkoa.
- 23:00 Erromeria: Oinutsik.

Irailak 2, astelehena

- 11:00 Txupinaren jaurtitzea eta diana.
- 11:30 Antolintxu, Madalentuku eta Udalbatzaren elkarretaraztea Ontziola plazan, eliz plazara igotzeko.
- 12:00 Antolin Deunaren ohorezko meza eta aureskua.



- 13:30 Musika bandaren kontzertua, Ontziola plazan.
- 14:30 Fanfarreak girotutako koktela, herriko kaleetan.
- 17:00 Umeentzako puzgarriak, portuan; Jai Alai frontoian euria egiten badu.
- 20:00 Urrezko alpargatak banatzea. Kalejira elektrotzarangagaz, Antolintxuak eta Madalentukuak agurtzeko.

UKA
ARBOLAZAINAK
Tala y poda en altura

AURREKONTUAK ETA INFORMAZIOA
Presupuestos e Información

+34 624 307 415
info@ukapoda.eus

ecc
CERTIFICADO
TALA Y PODA

OKIDOKI

ENGLISH ACADEMY PLENTZIA

CURSO ESCOLAR
CURSO ADULTOS
CLASES PRIVADAS
INTENSIVOS DE VERANO

TODOS LOS NIVELES
GRUPOS REDUCIDOS

INGE : 680451032 ERRIBERA 18 PLENTZIA

ur tantak
IKUZTEGI AUTOZERBITZUA · LAVANDERÍA AUTOSERVICIO

Azkar garbitu eta lehortu

Zabalik urteko 365 egunetan
9:00etatik 22:00etara

urtantak.com

Eleiz enparantza 7, 48620 Plentzia
611 433 641

Altzagako jai berezi eta aha

Abuztuaren 27tik irailaren 1era ospatuko dituzte aurten Altzagako jaiak. Nolakoak izango diren eta ekarriko dituzten herritasunak kontatu dizkigu jai-batzordeak.

ANDER ZARRAGA GOIRIZELAIA ►

Zerk egiten ditu berezi Altzagako jaiak? Batetik, tradizioa eta historia, Altzagako jaiak oso sustraituta baitaude herriko tradizio eta historian. Urtero antolatzen dira eta belau-naldiz belaunaldi transmititu diren ohiturak gordetzen dituzte, hala nola nasapuntakoa, goitibeherak eta, aurten, lapikoen lehiaketa berreskuratzen saiatuko gara. Horrez gain, herriaren parte-hartzea ere azpimarratuko genuke. Jaietan, herritar guztiak inplikatzeko dira ekitaldietan eta antolaketa.

Kultura aniztasuna ere osoa garrantzitsua da Altzagan, horregatik, festak kultur ekitaldi ugari osatuta daude: musika, dantza, antzerkia eta kirol ekitaldiak, besteak beste. Gainera, horrek adin eta gustu desberdinetako pertsonak erakartzen ditu. Askotariko ekintzak eta ekitaldiak antolatzen dira: haurrentzako eta helduentzako jarduerak, kontzertuak, su artifizialak eta lehiaketa gastronomikoak, besteak beste. Azkenik, egun hauetan herri guztia batzen da lehiaketa gastronomikoen inguruan; berdin dio adina edo kuadrilla, herritar guztiek parte hartzen duten ekitaldi ikaragarriak dira. Hori guztia kontutan hartuta, Altzagako jaiak benetan bereziak eta ahaztezinak bihurtzen dira.

Nork botako du aurtengo txupina? Aurten sistema berria daukagu pregoia nork irakurriko duen erabakitzeke. Jai-batzordeak erabaki beharrean, galdetegi bat zabaldu dugu herritarrek proposamenak botatzeko eta, gehien errepikatzen diren artean, herriak bozkatuko du nork hartuko duen ardura.

Aurten herritasunik prestatu duzue? Aurten, hainbat berrikuntza izango ditugu. Alde batetik, jaiak herri erdira ekarriko ditugu berriz ere, Irailaren 23a plazara, hau da, herriaren bihotzera. Erabakia herritarren iritzia entzun ondoren hartu dugu, eta guztien parte-hartzea errazteko asmoarekin egin da. Beste aldetik, pregoia herriak erabakitzea ere berri-



Abuztuaren 27an, 13:00etan, Irailaren 23a plaza pozez eta algaraz beteko da pregoia

Esker-ematea

«Aurrekontu mugatuarekin ahal den gehiena egiten saiatzen gara; gustatuko litzaiguke gehiago egitea edo ekintza handiago eta hobek antolatzea. Eskerrak eman nahi dizkiegu herriko merkatariari, haien lankidetzari eta ekarpenak direla eta, aurrekontuaren zati handi bat hortik lortzen baitugu. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiegu txosnei ere, edalontzien salmentarekin diru kopuru garrantzitsua lortzen dugulako, baita kuadrillei ere, jaietan bizitza ematen dutelako»

tasun bat da, aurten herritarrek aukeratuko baitute bozka-bidez. Horrek jaiak herrikoia-goak eta parte-hartzaileagoak ere egingo dituela uste dugu. Horrez gain, altzagarren parte-hartzea sustatzea ere izan da helburua, horregatik, saiatu gara hori ahalik eta gehien sustatzen. Jai-batzordean gutxi garenez, jaiak arrakastatsuak izan daitezeko, ezinbestekoa iruditzen zaigu herritarren laguntza eta inplikazioa izatea. Berrikuntza horiekin, herriaren ahotsa eta parte-hartzea erdigunean jartzea lortu nahi dugu, eta espero dugu aurtengo Altzagako jaiak guztion artean ospatzeko aukera izatea.

Zein izaten da jaietako momenturik bereziena? Txupinazoa. Jaiak hasteko unean herri osoa biltzen da plazan, eta emozioa eta alaitasuna oso nabariak dira. Herritarrak elkarrekin jaiak hasteko irrikan egoten dira, eta giroak aparteko energia du. Horrez gain, jaiak amaitzeko agurra ere momentu berezia da, jaiak nolakoak izan diren nabaritzeko unea delako eta herriari eskerrak ematen dizkiogulako egindako lan guztiagatik eta parte-hartzeagatik. Horrek, komunitate sentimendua indartzen du eta jaiak modu hunkigarrian amaitzeko aukera ematen digu.

ztezinak



irakurri eta jaien hasiera iragarriko duen txupina bota eta gero.

Nola aldatu dira jaiak urte hauetan? Azken urteotan, Altzagako jaiak aldaketa eta berrikuntza ugari izan dituzte. Batetik, musika eskaintza askotarikoagoa eta zabalagoa izan dugu jaietan. Genero ezberdinetako kontzertuak antolatu ditugu, adin eta gustu guztietako jendea erakartzeko. Bestetik, familia-lehiaketa berri bat hasi dugu, eta horrekin batera, parte-hartzea nabarmen handitzea lortu dugu. Ekimen horrek familia guztiak inplikatzeko eta jaietan aktiboki parte hartzea sustatzen du, giro atsegin eta familiarra sortuz.

Herritarrei bidali gurako zeniekeen mezuren bat? Jakina! Herritarrei esan nahiko genieke aurten kide batzuk utzi egin dutela jai-batzordea eta beste batzuk sartu egin direla, aldaketak egon direla, baina saiatuko garela herriaren iritzia gehiago kontuan hartzen. Badakigu ez dela erraza jaiak guztien gustura egitea, baina ahalegin handia egiten ari gara ekintzak eta jarduerak guztiontzat egokiak eta askotarikoak izan daitezen. Badakigu ezin ditugula denak poztu, baina zuen iritzia entzuten eta horretara moldatzen saiatuko gara. Zuen parte-hartzea eta iritzia funtsezkoak dira jaiak hobetzeko eta denon gozamenarako. Eskerrik asko zuen laguntzagatik eta parte-hartzeagatik! ◀

Abuztuaren 27tik irailaren 1era

Abuztuak 27, martitzena

- 12:00** Kuadrillen lehiaketarako izen-ematea, Irailaren 23a plazan.
- 12:45** Jaietako zapiaren lehiaketako sari-banaketa.
- 13:00** Txupinaren jaurtitzea udaletxeko balkoitik. Ostean, erraldoiak eta kilikiak.
- 15:00** Urdaiazpikoaren zozketa.
- 17:30** Txikitxupin.
- 19:30** Kuadrillen aurkezpena, Desanexio kalean.
- 20:00** Kuadrillen lehen frogak.
- 22:00** Zezensuzkoa, Irailaren 23a plazan.
- 23:00** Kontzertua.

Abuztuak 28, eguaztena

- 11:00** Diana.
- 12:00** Paella Lehiaketako izen-ematea.
- 12:00** Olgetan Solas, Legazpi kalean.
- 13:00** Meza nagusia eta udalbandaren kontzertua.
- 14:00** Paellen aurkezpena.
- 16:30** Familien lehiaketako frogak.
- 17:30** Walas magoaren ikuskizuna, elizan.
- 19:00** Kontzertua.
- 22:30** Erromeria: Nonbait.
- 01:30** DJ Gaua.

Abuztuak 29, eguena

- 11:00** Umeentzako puzgarriak.
- 12:00** Tortilla Txapelketako izen-ematea.
- 13:30** Kalejira.
- 14:00** Tortillen aurkezpena.
- 16:30** Kuadrillen frogak.
- 18:00** Ausartzen tailerra, Europa plazan.
- 18:00** Futbolin- eta dardo-txapelketak, Garagar tabernan.
- 21:30** Zezensuzkoa.
- 23:00** Kontzertuak.

Abuztuak 30, barikua

- 11:30** Puzgarriak.
- 12:00** Kuadrillen frogak.
- 13:00** Auzoko nagusientzako luntxa, Merkatu Zaharrea, eta Mendibitate otxotearen kontzertua auzotik.
- 13:30** Trikipoteo ibiltaria.
- 15:00** Helduentzako bingoa, Merkatu Zaharrea.
- 15:00** Herri-bazkaria, Irailaren 23a plazan.

- 17:30** Kuadrillen frogak.
- 18:00** Txitxarrillo, Merkatu Zaharrea.
- 18:00** Futbolin- eta dardo-txapelketak, Garagar tabernan.
- 19:00** Elektrotzaranga ibiltaria.
- 20:00** Kontzertua, Gure Lur tabernan.
- 22:30** Kontzertuak: Raimundo el Canastero eta Dupla, Irailaren 23a plazan.
- 02:00** Kulero eta galtzontzilo lasterketa.

Abuztuak 31, zapatua

- 11:00** Kalejira herriko kaleetatik.
- 11:30** Puzgarriak
- 13:00** Bertso-saioa, Irailaren 23a plazan.
- 15:00** Gazteen herri-bazkaria.
- 16:30** Nasapuntakoa.
- 17:00** Puzgarriak, Legazpi kalean.
- 17:30** Aurreku-lehiaketa, Irailaren 23a plazan.
- 18:00** Erraldoiak eta kilikiak.
- 18:00** Anima eskolako ikasleen antzerkia, Merkatu Zaharrea.
- 19:30** Sari-banaketa.
- 20:00** Kuadrillentzako luntxa.
- 22:00** Kontzertua: Eire, Irailaren 23a plazan.

Irailak 1, domeka

- 11:45** Uztargiren kalejira.
- 12:00** Pontx pailazoaren ikuskizuna, eliz plazan.
- 12:00** Alardea, Irailaren 23a plazan.
- 13:00** Kalejira herriko kaleetatik, «marianitada» eta txanpiak, txosnan.
- 13:30** Ur-gerra, Santi Brouard plazan
- 13:30** Erraldoiak, kilikiak eta gaiteroak herriko kaleetatik.
- 16:00** Goibeheren lehiaketa.
- 18:00** Kalejira herritik eta bilbainadak Irailaren 23a plazan.
- 20:00** Kontzertua: Gorrondatxe, Irailaren 23a plazan.
- 21:00** Zezensuzkoa, Irailaren 23a plazan.
- 21:30** Agurra eta azken traka.

Irailean ere, jaiak bihar

Irailearen 6tik 15era

Iraillak 6, barikua

- 19:00** Txupina jaurtitzea eta pregoiaren irakurketa. Ondoren, Kakarraldoren jaitsiera herritik Landaraino.
- 20:00** Herrian zendutakoen omenezko meza.
- 20:30** Helduentzako playback-a.
- 00:30** Kontzertua: Old Glasses.

Iraillak 7, zapatua

- 13:45** Herri-bazkaria.
- 15:00** Umeentzako animazioa.
- 21:00** Zezensuzkoa.
- 23:30** Kontzertua: Garilak 26.

Iraillak 8, domeka

- 10:00** Kalejira txistulariakaz.
- 11:00** Meza.
- 11:30-13:00** Txi txung tailerra.
- 11:45** Ohorezko aureskua.
- 12:00** Herri kirolak.
- 16:00** Txirindularitza-lehiaketa.
- 19:30** Txistorrada.
- 20:30** Los 5 Bilbainos ikuskizuna.
- 22:00** Deabru beltzak ikuskizuna.



Iraillak 9, astelehena

- 17:00** Kilometro erdi bertikalean + umeak.

Iraillak 13, barikua

- 21:00** Zezensuzkoa.
- 23:00** Kontzertua: Puro Relajo.

Iraillak 14, zapatua

Mozorro eguna: «Far west»

- 09:00** Paddel-txapelketa.
- 10:00** Kalejira txistulariakaz.
- 10:30** Umeentzako ur-parkea eta bits-jaia.
- 13:00** Paella-txapelketa.
- 13:00** Iratxo Gorria taldearen ikuskizuna.
- 13:30** Sokatira-erakustaldia.
- 20:00** Sardina-jana.
- 20:30** DJ Gaua.
- 23:00** Kontzertua: Rage Heart Band + Kulto Kultibo.

Iraillak 15, domeka

- 12:00** Kotxe klasikoak.
- 18:30** Eleder magoaren ikuskizuna.
- 13:00** Kuadrillen frogen sariak eta jaien amaiera.



Egitarau hau behin-behinekoa da; jaiak hurbildu ahala ekimen gehiagoren berri emango da HIRUKA.eus-en.

inpresio digitala



**Inprimatze Digitala
Formatu Guztietan**

Sabino Arana 82, 48940, Leioa
944 649 176 - 944 014 431
monkopileioa@gmail.com

KOPILEIOA



☎ 688 687 073 - 671 357 601
🌐 serviciocaninobizkaia.com
✉ serviciocaninobizkaia@gmail.com
📍 URDULIZ



amunera arte!



Radio Patio kuadrilla bi aldiz izan da Urdulizko jaietako kuadrilla irabazlea. RP

Radio Patio kuadrillak bigarren ez botako du txupina Urdulizko jaietan. Horren aurrean, «benetan harrিতuta» daudela baieztatu dute, baina, betiere, jaietarako gogotsu.

Udako azken jaiak pena handiz agurtuko dituzte herritarrek. Hala ere, tristura azkar igaroko zaie Urdulizko Andra Mari jaietarako prestatuta duten egitaraua ikusten dutenean. Izan ere, aurten irailaren 6tik 15era ospatuko dituzte festok.

Aurtengo jaietako txupina botatzeko ardura Radio Patio kuadrillak izango du. Halaber, ez da ohore hori beteko duten lehenengo aldia, horregatik, oso pozik daude bigarren irabazle atera direlako. «Erantzukizun handia da kuadrilla irabazlea izatea, maila altua espero duelako jendeak zugandik. Zaila da hori mantentzea, baina beti ditugu ondo pasatzeko gogoak», onartu dute. Halere, nahiz eta hirugarrenez irabaztea itzela izango litzatekeela onartu, nabari dute kuadrillak gero eta «inplikatuago» daudela. Hala, kuadrillen arteko erroka ere zaildu da Urdulizen.

Radio Patio kuadrillak baieztatu du jaietatik gehien gustuko duen gauza kuadrillen arteko giro ona dela: «Hain herri txikia izanda, jende guztia ezagutzen bukatzen duzu, eta oso giro polita sortzen da denon artean».

Aurreko jaietatik gogoratzen duten anekdota bat da azken momentuan playback-a aldatzeko zorian egon zirela: «Jakin genuen beste bi kuadrillek gure abesti bera zutela».

Hala, aurten ere dena emateko prest daudela argi dute, betiere, gozamina eta lagunartekotasuna iparrorraz izanda.

Urdulizko andramariak irailaren lehenengo hamabostaldian ospatzen diren jaiak izanda, oraindino ez dituzte egitarauko jarduerak guztiak zehaztu. Hala ere, hiruka.eus atari digitalera sartuz gero, programazioa eguneratuta ikusteko aukera izango duzu uda osoan zehar. Adi ibili! ◀

Leioa Ondiz eta Udondo

Jaietako oihartzuna irailera arte helduko da



Irailen ere ospatuko dituzte jaiak. LEIOAKO UDALA

Leioak hainbat auzo ditu, eta udalerriko jai nagusi eta ospetsuenak San Juan egunaren inguruan ospatzen badituzte ere, badira irailen ere festak ospatzen dituzten auzoak.

Batetik, irailaren hasieran, Ondizko jaiak ospatuko dituzte. Jaiok egitarau oparoa izan ohi dute, tamalez, ekintzen zerrenda ezin izan dugu lerrootara ekarri, oraindino osatzeke daude-eta. Hala ere, bakailao lehiaketak ospe handia dauka festa hauetan, eta jende asko erakartzen duen tradizio handiko txapelketa-gastronomiko honen 56. aldiak seguru ez duela hutsik egingo. Horrez gain, egitarauko beste puntu nabarmena izaten dira auresku lehiaketak: iaz, Bizkaiko 61. Auresku Txapelketa eta Ondizko Emakumezkoen 14. Auresku Txapelketa egin zituzten, eta aurten ere hitzordu horrek ez du hutsik egingo.

Horrez gain, Ondizko jaien ostean, Udondoko auzokideek hartuko dute erreleboa Leioan. Hemen ere, auzokoentzako eta leioaztar guztientzako hamaika ekintza antolatuko dituzte, adin guztietako herritarrek ederto pasatzeko. Ondizen bezala, Udondon ere urtez urte ospatu ohi dituzten ezinbesteko hainbat kontu dituzte, hala nola paella-txapelketa, nekazari eta artisau azoka, antzinako kotxe eta motorren erakusketa, arrantza-txapelketa edota igel-topa lehiaketa. Horiek guztiak, eta askoz gehiago, hiruka.eus atarian ikusgai egongo dira egitarauak prest dituztenean. ◀

Egitarau hau oraindik ez dago prest. Publiko denean, HIRUKA.eus-eko jaien atalean argitaratuko dugu.



Jaiak bertsoz beteko dituzte udan ere



Udan, Algortako Bertsolari Eskolak hamaika bertso-saio antolatuko ditu, bai Getxon, baita inguruko herrietan ere, bertsozale guztien grina asetzeko asmoagaz. Tartean, ez dira faltako urteroko hitzordu garrantzitsuak, hala nola Bertso Jaialdi Mundiala edo Bertso Maratoia.

Uztailetik irailerako saioak

Uztailak 10, eguaztena

Bertso Jaialdi Mundiala

19:00 | Muxikebarri Antzokian

Urtero Algortako Bertsolari Eskolak antolatzen duen bertso-saio erraldoia. Bertaratzeko gonbidapenak eskuratu daitezke bertsosarrerak.eus atarian.

Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Onintza Enbeita, Joanes Illarregi, Sustrai Colina eta Paule Loizaga.

Uztailak 28, domeka

Algortako San Inazio jaiak

13:00 | Kasino plazan

Ettxeko jaietan ere ez dira bertsoak faltako; horretarako agerlekua izango dute Kasino plaza.

Bertsolariak: Paule Loizaga, Jon Maia, Aissa Intxausti eta Amets Arzallus.
Gai-jartzailea: Jon Amezaga.

Uztailak 28, domeka

Gorlizko Santiago jaiak

20:00 | Eliz plazan

Tradizio handiko bertso-saioa egiten dute urtero Gorlizko Santiago jaietan.

Bertsolariak: Naroa Torralba, Aitor Sarriegi, Erika Lagoma eta Igor Elortza.
Gai-jartzailea: Oihana Diaz.

Uztailak 30, martitzena

Algortako San Inazio jaiak

13:00 | Algortako Kasinoko plazan

Aurten ere, ez da saio bakarra izango Algortako saninazioetan; hemen bigarren hitzordua.

Bertsolariak: Jone Uria, Julio Soto, Peru Abarrategi eta Aitor Mendiluze.
Gai-jartzailea: Arrate Illaro.

Uztailak 31, eguaztena

Bertso Maratoia 2024

13:00 | Kasino plazan

Kirol proba gogorrenak bezala, azken txanpa izango da ikusgarriena Algortako saninazioetan.

Bertsolariak: Saioa Alkaiza, Kerman Diaz, Andoni Egaña eta Nerea Ibarzabal.

Gai-jartzailea: Beñat Vidal.

Maratoilariak: Andoni Egaña eta Nerea Ibarzabal.

Abuztuak 1, eguena

Itzulbatzeta/Romo eta Pinuetako jaiak

16:30 | Txosna-gunean

Aurten ere, ALBE eta Itzulbatzeta/Romoko jai-batzordeak bi bertso-saioa prestatuko dituzte auzoko festetarako: bertso-jaialdia eta bertso-poteoa.

Bertsolariak: Imanol Uria, Igor Elortza, Maddi Ane Txoperena eta Julio Soto.

Gai-jartzailea: Erlantz Pazos.

Abuztuak 3, zapatua

Itzulbatzeta/Romo eta Pinuetako jaietako bertso-jira

19:00 | Txosna-gunetik abiatuta

Bertsolariak: Joanes Illarregi eta Unai Mendiburu.

Abuztuak 8, eguena

Gorlizko Terraza bertso-plaza

20:30 | Eliz plazatik abiatuta

Bertsolaria: Oihana Bartra eta Xabat Gallettebeitia.

Gai-jartzailea: Erlantz Pazos.

Abuztuak 11, domeka

Portu Zaharreko jaietako bertso-saioa

19:30 | Ettxexu plazan

Algortako Portu Zaharreko jaietan ere ez dute huts egingo bertsolariak.

Bertsolariak: Inazio Vidal eta Oihana Bartra.

Abuztuak 12, astelehena

Portu Zaharreko jaietako Marmitako Eguneko saioa

18:00 | Ettxexu plazan

Portu Zaharreko jaietan, marmitako-lapiko artean ere arituko dira bertsolariak jolasean.

Bertsolariak: Inazio Vidal, Galder Bilbao "Txapi" eta Unai Mendiburu.

Abuztuak 31, zapatua

Erandioko San Agustin jaiak

13:00 | Udaletxeko plazan

ALBEko bertsolariak itsasadarrean gora egingo dute Erandioko arte, Altzagako San Agustin jaietan bertsoan aritzeko.

Bertsolariak: Unai Mendiburu, Jexux Mari Irazu, Jone Uria eta Gorka Pagonabarraga
Gai-jartzailea: Iñaki Beitia *Arbildo*.

Irailak 22, domeka

Hitzaren Dantza 2023

11:00 | Algortako kaleetan

Daborduko uda bukatuta egon arren, Hitzaren Dantza jaialdiak jaietako espirituari eusten dio. Hala, aurten, bertsoak, musika eta dantza izango dituzte Algortako kaleetan, egun osoko egitarau batez.

Bertsolaria: Paule Loizaga, Patxi Iriart eta Oihana Iguaran.





Zezensuzkoa

Udako jaiekin batera, negu aldean lozorroan egoniko zenbait pertsonaia itzartu ohi dira, besteak beste, jaietako maskotak, erraldoiak, buruhandiak eta... zezensuzkoa!

Zezena aspalditik miretsi eta gurtu izan dugu euskaldunok.

Soriako La Laguna herrian **Oraingo Aroko** I. eta II. mendeen bitarteko **hilarri** bat agertu zen, 20 urte zituela hil bide zen Antestius Zezenko herritarren izena zekarrena; horra hor zezena, pertsona-izen bihurtuta.

Nafarroako Uxue herrian aurkitutako **botozko oparri** batean, Lakubegi jainko indigenari egiten zaio eskaintza (harriaren aldeetako batean zezen baten buruaren irudia ageri da). Aldare hori o.a.-ko IV. mendean kokatu dute adituek.

Zezenarekiko miresmen hori gaurdaino iritsi da, sanferminetako urteroko entzierroetan ikus daitekeenez.

Zezensuzkoaren lehenengo erreferentziak, bestetik, XVII. mendeko sanferminetakoak ei dira, baina **zezen enbolatuaren** jatorria askoz lehenagokoa bide dugu.

Hipotesi baten arabera, zezen enbolatu edo zezensuzkoak bi mila urteko antzintasuna du. Orduan, iberiarrek arma moduan erabili omen zituzten **zekor** enbolatuak kartagotarrak azpiratzeko. Soriako Medinaceli herrian ospatu ohi den *Toro Júbilo* erritua izan liteke horren isla. Ospakizun horretan zezen eder bat basaz estaltzen da hanketatik kopetaraino sutatik babesteko, eta adarretan suzko bola bana ezartzen zaizkio.

Beste hipotesi batek Neolitoraino darama praktika horren jatorria; izan ere, bada Soriako Valonsaderoko labar pinturretan zezensuzkoa ikusi uste izan duenik.

Baina Aro Garaikidera etorrira, euskal zezensuzkoaren asmakuntza donostiarrek egin zutela aldarrikatu zuen Serafin Barojak, Pio Baroja eleberrigile ezagunaren aitak, 1879an idatzitako bertso sorta batean: *Bejondaizula zezensuzkoa, donostiarren inbenzioa, / gazteenztat / ta zaharrentzat / fest(a) gain-gainekoa*. Uste batek dio marinel donostiar batzuek ekarri zutela ohitura hori, nondik eta Txinatik! Han aspaldi-aspaldikoa da **sutautsa** erretzea mugimenduan diren irudien gainean.

Usteak uste, gatozen gure eskualdera zezensuzkoaren **susuan**. Karla Llanos *Memorias de Getxo* blogaren egile nekazinari esker jakin dugu 1960tik aurrera ohikoa izan zela zezensuzkoa Getxoko jaietan. Orduko zezensuzkoa Piroteknia Zaragozanari erosten zitzaion.

Garai egungoagoetara etorririk, eta zezensuzkoaren azpian joan ohi den eroale sufrituarekin akordaturik, ezin aipatu barik utzi gure Inazio Etxebarria, izengoitiz *Guzurti*. Izan ere, makina bat aldiz ikusi genuen *Guzur* eskualdeko jaietan, alboan Piroteknia Guzurti idatzita zeukan zezensuzkoaren azpian **hanka jokoan**, laguntzaile Alberto de Abajo *Zoro* zuela. Bihoazkie bie gure eskerrik beroenak jai giroko zezensuzkoaren lilura eta zoramena herritarroi bizitzeko aukera ematearren. ◀



Berba azoka

Oraingo Aroa

Egutegi gregorianoko urteak zehazteko erabiltzen den notazio sistema bat da, Kristo aurreko (K.a.) eta Kristo osteko (K.o.) notazioen ordezkia.

Hilarri

Hilobia estaltzen edo ixten duen harria; hilobi gainean eraikitzen den oroitaria.

Botozko oparri

Jainkoei opariak edo sakrifizioak eskaintzeko harria edo leku jasoa; botozko aldea (gaztelaraz, *ara votiva*).

Zezensuzko

Zezensuzkoa pertsona batek gainean eramaten duen zezen itxurako gailu piroteknikoa da, Euskal Herriko eta inguruko jaietan bereziki gauz pizten dena, eta inguruan dabilen jendeari korrika eragiten diona. Zezen enbolatuari ere deitzen zaio.

Zezen enbolatu

Adarretan amuko edo iztupa koipeztatuzko bola bana ezartzen zaizkion zezena, ondoren bola horiei su eman eta jende artean askatzen dena, zirrara eragiteko; zezensuzkoa ere deitu ohi zaio.

Zekor

Txahal arra; Uribe Kostan zezena.

Aro Garaikide

Aro Garaikidea edo Gaur Egungo Aroa Historia banatzen den zatietako laugarrena da, Aro Modernoaren ondorengoa.

Sutautsa

Hauts-nahastura lehergaia; bolbora.

Susuan

Bila, peskizan, irrikan.

Hanka jokoan

Lasterka, korrika, karraderan.

UKatu asanblada LGTBIQ+fobiaz

«Jaiek heteropatriarkalak izaten jarraitzen dute»

NAHIA MARTINEZ GONDRA ▶

Maiatzaren 12an, Getxoko Andra Mari jaietan jasandako eraso lesbofobo bat salatu zuten emakume bik. Udako jaien hasieragaz batera, jazarpen horiek errepikatzeko arriskua dago. Horren aurrean, Uribe Kostako UKatu asanbladak argi du eraso horiek «onartezinak» direla eta erantzuna «kolektibo» izan behar dela.

Gero eta ohikoagoak dira LGTBIQ+fobikoak diren erasoak? Urteetako borrokari esker, gaur egun, gero eta aukera gehiago daude sexu-genero disidenteontzat geure buruak askatasunez aurkezteko, baina ikusgarritasun horren aurrean badago erantzun erreakzionario bat. Gure aurkako bortizkeria beti existitu den arren, azken urteotan diskurtso faxisten gorakada eta normalizazioa bizitzen ari gara eta horiek erasoak zilegi egiten dituzte.

Nolako guneak dira jaiak identitate disidenteentzako? Herriko jaien txosna-guneak gainontzeko eremuak baino seguruak direla esango genuke, batez ere, gune feministak. Jaiak, baina, herri osoan ospatzen dira, ez bakarrik esparru politizatueta. Horiek gune publikoan ematen diren heinean, eta sexu eta genero disidenteok eremu hauek hartzen ditugun heinean, bortizkeria jasotzeko aukerak areagotzen dira. Izan ere, erasoen helburua gu eremu publikotik kanporatzea da, armairuetara itzultzea, izuturik. Aldarrikatu nahi dugu kaleak eta gauak gureak ere badi-rela, baina lan handia dago aurretik egiteko. Tamalez, erasoak *gureak* sentitu ditzakegun eremuetan ere ematen dira oraindik.

Erasoeraino gainera, bestelako arazoak identifikatzen dituzue jai eremuetan? Jaiak heteropatriarkalak izaten jarraitzen dute eta gizon zisheteroak dira gune gehienetan protagonistak. Nahikoa da kuadrillen jaitsiera bati erreparatzea. Salbuespenak salbuespen, ohikoa da gizonezko kuadrillen nagusitasuna eta, ondorioz, haien jarreraren protagonismoa. Zenbat alditan ikusi ditugu gizon heteroak gona eta ileordeak jantzita marikak parodiatuz herriaren aurrean? Bada garaia (eta pixkanaka lortzen ari gara) sexu-genero disidenteok gure eredu propioak zabaltzeko.



UKatuko kideak; beheko argazkian ekainaren 28ko manifestazioan. HODEI TORRES



«Gure hautua izan da borroka hau gure eskualdean jorratzea, Uribe Kostan den heterolandiari arrakalak eragin eta sistema kolokan jartzen hasteko. Horregatik, garrantzitsua deritzogu eskualdean ere guretzako guneak sortzea, gure artean saretzea eta zaintza eta babesbermatzea»

Udako jaietarako protokolorik duzue prestatuta? Ez daukagu protokolo propiorik, baina herri ezberdinetako mugimendu feministekin harremanetan gaude eta haiek sorturiko protokoloak egokiak dira martxan jartzeko eraso LGTBIQ+fobo bat gertatuz gero. Nabarmendu beharra dugu sexu-genero disidentzia eta mugimendu feminista aliatuak garela borrokan, bidelagun sarritan, eta zisheteropatriarkatua suntsitzeko helburu komuna dugula zerumugan.

Eraso LGTBIQ+foboen aurrean, babesbermatzea egon dela nabaritu duzue? Gaur egun, sexu eta genero disidenteon bizitzak ez dira oraindik lehentasun bat jendearentzat. Atsekabez ikusten dugu nola mota honetako erasoak ematen direnean, antolatzen diren mobilizazioetara betiko berdinak agertzen garen, eraso matxistak daudenean bezala. Gure kolektiboaren data esanguratsuak eta aldarriak ez daude jendearen agendetan. Uste dugu erasoen aurrean beti erantzun behar dela modu kolektiboan: mezua izan behar da onartezinak direla mota horretako gertakariak.

Gehitu gura duzuen zerbait? Askotan gizarteak biktimak bezala aurkezten gaitu, eta guk irudi horretatik aldentu nahi dugu. Gaitasun handia daukagu sistema zalantzan jartzeko. Ez dugu gizartearen tolerantzia edo onarpena nahi, gizartea da aldatu behar dena. ◀

Uribe On Tour 2024, prest zaude eskualdeak eskaintzen duena bizitzeko?

Aurtengo edizioagaz, Uribe On Tour programak 5 urte beteko ditu, eskualdeko erakargarritasun turistiko baliua emanez, uztailan eta abuztuan era guztietako publikoetara egokitutako jardueren eskaintza dibertsifikatu batez.

Ekimenak garapen jasangarriaren helburuei erantzuten jarraitzen die, ekoizlearen eta bisitariaren arteko harreman zuzena erraztuz. Horren adibide da txakolin-azoka eta -upategietara joateko gonbidapena: neurrirra egindako eskaintza erakargarriari esker, bisita gidatuek eta dastaketek lehen mailako esperientzia enogastronomikoak bizitzeko aukera eskaintzen dute.

Ildo beretik, Bakioko Txakolin Museo-Txakolinguneak *Uriberen koloreak* jarduera ere eskaintzen du, txakolinaren aniztasuna ezagutzeko aukera, dastaketa eta pintxo eta guzti.

ONDAREA ESKURA. Bestalde, Uribe On Tour 2024k eskualdeko ondare geologikoaren balio turistiko handia sendotzen du, besteak beste, Bizkaiko Flyschari balioa emanez. Geologo adituek gidatutako bisitak eta parapente-hegaldia bezalako abentura-jarduerak izango dira paisaia ikusgarri honetako jarduera nagusiak.

Gainera, kulturak eta ondareak leku nabarmena izango dute berriz ere aurtengo Uribe On Tour 2024ko programazioan, Berango, Mungia eta Plentziara bisitak dibertsifikatuko dituen eskaintzagaz.

Batetik, Berangon, Burdin Hesiaren Oroimezko Museoak ateak irekiko ditu 36ko Gerran Bilbo tropa frankistengandik babestea helburu zuen eraikuntza defentsibo honen historia interesgarria ezagutzeko.

Bestetik, Mungia hurbilduko diren pertsona guztiek bisita gidatuek gozatu ahal izango dute eta, artoa oratzera animatzen direnek, talo-tailerra ere egin ahal izango dute Landetxo Goikoa Baserrian, XVI. mendean eraikitako Bizkaiko baserririk zaharrenean.

Bukatzeko, Plentziak ere bat egingo du Uribe On Tourreko aurtengo kultur programazioagaz, kostaldeko herri honetako historia, arkeologia eta kultura biltzen dituen bisita-eskaintza zabalagaz.

Herri gehiago izango dira protagonista edizio berri honetan, gustu eta kolore guztietako



BIZKAIKO FLYSCHA, ESKUALDEKO ONDARE GEOLOGIKO IKUSGARRIENA.



www.uribe.eu

Webgune honetan eskualdeak eskaintzen dituen erakargarri turistiko nagusiak aurkitu daitezke, baita horiez gozatzeko gakoak zeintzuk diren ere.

jarduerakaz, hala nola Berangoko eskalada es-talia, Gorkizko Dastatuarte Food & Art jaialdia, Leioa eta Sopelako bisita gidatuak txango formatuan, 4x4 abentura-irteerak kostaldean edota Bakioko surf ikastaroak.

Uribe On Tourreko bisita eta jarduera guztiak uztailan eta abuztuan izango dira. 2024ko programa osoa eta erreserbak www.uribe.eu webgunean kontsultatu ahal izango dira.

Edizio berri honez, udako hilabeteetan Uribe eskualdea sustatzeko eta ezagutarazteko hitzordu garrantzitsuenetako bat finkatu da, eta, urtez urte, interesa eta asistentzia handitzen jarraitzen du. ◀

Zein da zure aukera udarako?

Ur-parkea | Gorliz



Uda osoan, irailaren 8ra arte, eskura duzue New Diversion Park uretako parkea, Gorlizko Astondo inguruan. Bertan, heldu zein umeeek berdin gozatu ahal izango dute hondartaz, puzgarriz eta koltxonetaz betetako ur-parkean. Begiraleak eta sorosleak daude, lehen unetik, esperientzia dibertigarria izateaz gain, seguru ere izan dadin. Sarreragaz batera, ur-parkean ordubete egon zaitezke, eta salbamendu-jaka ere jasoko duzu. Txonbo egin puzgarriz zoragarri hauetan! Informazio gehiagorako: newdiversionpark.com.

Sputnik Climbing | Berango



Berangon kokatutako eskalada zentroa da Sputnik Climbing. Arreta berezia jartzen dute eskaladak dituen hezkuntza-gaitasunetan, gizarte- eta ingurumen-balioak transmititzeko gaitasun handia baitu. 1.500 metro koadro dituen *boulder*-a dute, 120 eskalada-bide egiteko prest, publiko guztiei zuzenduta. Hastapenetarako 22 bide labur eta goi-errendimenduko eskalatzailentzat zuzendutako lekua ere badute. Familiek eta haurrek ere gozatu dezakete bertan. Eta hori gutxi balitz, hanburgesarik onena ere dute Kantinan zain! Informazioa: sputnikclimbing.com

Antsazi museoa | Dima



Dimako Artaun auzoan kokatuta, Antzastik XIX. mendera bidaiatzera gonbidatzen gaitu. Arratiako tranbiak modernitatea eta bizimodu tradizionala lotu zituen, bizimodua aldatuz. Balio antropologiko handiko museo hau enklabe paregabearen dago: Urkiola natura-parkeko sarreran eta Gorbeia natura-parkearen parean. XIX.etik XX. mendeko eguneroko bizimodua eta emakumeek landa nahiz hiri eremuan izandako papera erakusten ditu, Arratiako baserri bat eta Bilboko etxebizitza burges bat ditugune kontrajarrietan. Informazio guztia: antzasti.eus.

Bird Center | Gautegiz Arteaga



Urdaibai Bird Center naturaren museo bizia da, eta jendaurrera irekita dago hegaztiez eta horien migrazioez gozatzeko. Ekipamendua bera paduraren behatoki aparta da, eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren bihotzean dago kokatuta. Zentroan ikerketa eta dibulgazio taldeak bildu eta koordinatzen dira, eta, horrela, bisitariak hegaztiei buruz garatzen diren proiektuen lekuko pribilegiatuak dira. Zentro bizia da, inork ez daki egun berriak zer ekarriko duen; izan ere, hegaztien zehazten dute zentroaren norabidea! Informazioa: birdcenter.org.

Ez zarela udako jaien zalea, eta parranda hotsek herria hartzen dutenean alde egitea nahiago duten horietako bat zarela? Ez kezkatu, hemen dituzu oso urrun joan gabe ederto pasatzeko eta leku berriak ezagutzeko zortzi proposamen.

Sartu HIRUKAko zozketetan eta irabazi sarrerak eta askoz gehiago



Sendaviva | Arguedas



Atrakzioak, natura eta ikuskizunak bateratzen ditu familientzako abentura parke honek. Arguedasen dago, Nafarroako Errege Bardeak natura-parkearen ondoan, biosferaren erreserba izendatutako ingurune erdi-basamortuan. Planeta osoko 1.000 animalia baino gehiago aurkituko dituzu, 30 bat atrakzio izango dituzu gozagarri (asko uretakoak, udako beroari aurre egiteko aproposak) eta familian egun izugarri batez gozatzeko ikuskizunak eta jarduerak izango dituzu eskura. Entretanimendu aparta, natura bete-betean! Informazioa: sendaviva.com.

Camping Bardenas | Alesbes



Uda ezberdin baten bila bazabiltza, Nafarroako aukera zenbatezinak eskaintzen ditu oporraldirik onena bizitzeko. Lurralde hau ezagutzeko ideala da Camping Bardenas. Naturatik hurbil dago, Nafarroako toki nabarmenetatik gertu, Errege Bardeak natura-parkearen ondoan eta Sendaviva familientzako abentura parketik 15 minututara soilik! Kanpin honek denetarik du esperientzia ezin hobea bat izateko: berdegune handiak, barbaokoak, igerilekua, kirol-pista, mahai-tenisa, gimnasioa, gi-zarte gela, jolastokia... Informazioa: campingbardenas.com.

Lur Garden | Oiartzun



16 lorategiren lorategia da Lur Garden: sarrera-garoak, lorategi gorria, isplu lorategia eta lorategi horia, estrabagantzia lorategia, hosto handiko beste bat, hezeguneak, belardia, lorategi jurasikoa, goroldioen eremua, hortentsien lorategia, kalabaza tunela eta lorategi zuria. Arrautza formako egituragaz, Oiartzungo haran txiki batean errespetuz txertatuta dagoen lorategi honen magia esperientzia paregabea bermatzen du. Bisita gidatua (3 ordu) egin daiteke edota modu librean bisitatu (1,5 ordu). Informazio gutzia: lurgarden.eus.

Aquarium | Donostia



Donostiako Aquariuma derrigorrezko geralekua da Donostiara hurbiltzen diren bisitari guztientzako. Hiriko gunerik ikusgarrienean kokatuta, itsasoaren ondoan eta Alde Zaharretik pauso batera, 1928ko eraikin honek Kantauri itsasoko eta itsas-ondarearen erakusleiko bikaina eskaintzen du. Nabarmentzekoak dira bale australaren hezurdura osoa, 360 graduko tunel famatua, Kantauri itsasoko 200 espezie baino gehiago ikusteko aukera ematen duten akuarioak eta hainbat animalia tropikal ere. Informazio gutzia: aquariumss.com.

Sukaldaritzan aditua bilakatzeko

Paella | Arroza otarrainxkakaz



Osagaiak: Ponpa arroza 400 g, 12 otarrainxka, 12 txirla, 8 muskuilu, arrain-salda, tipula, baratxuri-hortza, 2 tomate, piper gorri eta berde bana, ilarrak 120 g, txipiroi freskoak uztaietan 200 g.

Hasteko, jarri paella-ontzia berotzen oliba-olio zurrusta on bategaz. Bero dagoenean, sartu otarrainxka garbiak gatz pixka bategaz. Jarraian, bota muskuilu garbiak, gehitu ardoa, gatz pixka bat eta estali, eta kendu muskuiluak ireki direnean. Jarraian, tipula eta baratxuriak gehituko dizkiogu paella-ontziari, zati txikitant moztuta. Minutu pare bat geroago, piperrak, ilarrak eta erramu-hostoa botako ditugu. Samur daudenean, txipiroi eraztunak gehituko dizkiogu, eta minutu batzuen ostean, tomate birrindua ere. Tomatearen uraren zati bat xurgatu denean, arroza gehituko diogu, noizean behin hori mugitzeko. Ondoren, txirlak botako ditugu eta gero arrain-salda. 8-10 minutu inguru utziko dugu egosten. Salda erabat kontsumitu baino lehen, sutik kendu behar dugu. Orduan, muskuiluak botako ditugu, ale guztiak ondo egosteko. Salda guztia xurgatzean, gure paella berezia prest egongo da.

Indaba putxera



Osagaiak: indaba kilo 1, 5 litro ur, 3 baratxuri, 2 azenario, 2 piper txorizero, porru 1, tipula 1, tomate birrindua, kilo erdi txerri-saihets, hirugiharra, txorizoa, odolkia, gatza eta oliba-olioa.

Lehenik eta behin, garrantzitsua da zein indaba mota aukeratzen den, horren arabera izango baita zaporea eta ehundura. Aukeraren arabera, aurreko gauek utzi behar dira uretan beratzen edo ez. Putxera pizteko, ikatzari su eman eta erretenak gori daudenean indabak eta barazkiak olio apur bategaz jarri eta dena uragaz estali. Barazkiak txiki-txiki egon daitezke edo saretxo batean sartuta, geroago txikitzeko. Ura irakiten hasten denean, irakitea ur hotzagaz moztu eta su baxuan egosten utzi, 90-110 gradu artean. Egosketaren erdian, haragiak gehitu, odolkiak izan ezik. Indabak eginda daudenean, motaren arabera 3 edo 4 ordu inguru egon ostean, odolkiak sartu, gatz puntua zuzendu eta 15-30 minutu utzi jalkitzen. Hainbeste koiperik ez izateko, haragia aparte ere egin daiteke, eta indabak ez apurtzeko, koilaragaz nahastu beharrean, hobe da putxera mugitzea, eta ur-maila ere ondo zaindu behar da.

ARRAUN
JAIETEXEA

Instagram and Facebook icons

Aretxondo kalea 20, 48991 Getxo

944 02 27 79

Motabarri
Erretegia

Leioa-Unbe errepidea. 32
48950 ERANDIO

619 62 29 74
motabarijatexea@gmail.com

Facebook and Instagram icons

unea da!

Aurten ere jaietako jakirik ospetsuenak ekarri dizkizuegu, zuek ere etxean presta ditzazuen. Garbitu eskuak, jarri amantala eta ez ahaztu gatza!

Zezen-buztana edo rabu



Osagaiak: Zezen-buztana zatituta, oliba-olioa, tipula, azenarioa, porrua, baratxuria, gatza, piper-hautsa, irina, ardo beltza eta ura.

Urdulizko Rabu Egunera zoazela baina ez dakizula zelan prestatu kazola on bat? Bada, ez larritu, erronkari behar bezala aurre egiteko moduko erre-zeta topatuko baituzu lerrootan Gorrondonako lagunek proposatuta. Lehenik eta behin, kazola batean barazki guztiak erregosi beharko dituzu oliba-oliotan, gatza gehituta. Ondoren, aurretik zatitutako zezen-buztana irinetan pasatu eta kazolan sartu. Zaporea gehitzeko, ardo beltz «arrunta», ura eta tomatea gehituko duzu, eta ordu eta erdian egosten izan dena.

Behin den-dena egosita dagoela, eta okela hezurretik ondo kentzen dela ziurtatuta, kazola sutik kendu eta hozten utzi. Azkenik, saltsa irabiagailutik eta iragazkitik pasa beharko duzu saltsa uniforme egiteko. Hori eginda, eta platerari zapore berezia emateko, bakoitzak gura duen gatza eta piper-hautsa bota dezake.

Patata-tortilla



Osagaiak: 9 arrautza, 5-6 patata, ekilore-olioa, tipula handi bat eta gatza.

Udako txapelketa gastronomikoetan, tipikoetan tipikoena da tortilla-lehiaketa. Erraza egitekoa, baina ez horrenbeste ona egitea. Bada, kuadrillen norgehiagoketan ondokoak liluratzeko moduko erre-zeta simple eta egingarria ekarri dugu lerrootara Urdulizko Txiberri tabernari esker. Hasteko, ekilore-olio bero-beroan, txikitutako tipula sueztitu ondoren, txiki zatitutako patatak gehituko ditugu zartaginean. Behin biak prest daudela, oliotik atera eta aurretik irabiatutako 8 arrautzagaz nahastuko ditugu, eta beste gorringo bat eta gatza gehituko dugu; ondoren dena nahastu. Lortutako «orea» hozten utzi aurretik, olio bero apur bat duen zartaginean botako dugu dena, alde batetik eta bestetik egin arte. Horregaz nahiko! Baina, hortxe Txiberrikoen kokxa: zein da normala? Tipuladuna ala tipularik gabekoa? Horri erantzuna emateko, tabernara gerturatzeko gonbita egiten dute urduliztarrek, «normala» zein den ezagutzera, eta beste guztiak!

Areatza, 54 · Plentzia

Gorrondona

☎ 94 407 69 18

📷 📺

TXIBERRI

edantokia

Frontoi partikularra, terroza estalia, bokatak, artisau-garagardoak, eramateko tortilo osoak eta askoz ere gehiago.

Gustora egoteko behar duzun guztial
Aita Gotzon kalea, 4 · URDULIZ · 946.760.715

Betiko postreez aspertuta? Eza

Holandatik ekarritako gaztarik dastagarriena: Gouda L' Amuse

Gazta, ardoa, garagardoa eta ogia saltzen dute urtebete zabalik daraman La Latxa dendan. Halere, euren gazta artisauek dira negozioaren arima. Algortako Torrene kolean kokatuta, Gouda L'Amuse gazta holandarra frogatzeko gonbida egin digute. Bere zapore txundigarriak ez zaitu axolagabe utziko.

ZERK EGITEN DU BEREZI GOUDA L'AMUSE GAZTA?

Gazta holandarra da, eta urte bi baino gehiago daramatza ontzen. Fruitu lehorrek bezain zapore goxoa du, eta hurra eta karamelu aroma nahasten dituen usain berezi bat nabarituko duzu hura frogatzean. Testura belusatua du, eta zaporea aldatzen joaten da: ahoan denbora uzten baduzu, zaporea biziagotu egiten da. Gouda L'Amuse zoragarri dago irasagarri-gaz batera. Bestela, ardoaz lagunduta, postrea berandura arte luzatzeko parada izango duzu. Ez zaitez lotsatia izan eta batu gazta maitaleen klubera!

Ezaugarriak: **karamelu aroma, urte biz ondutakoa, zapore biziduna eta holandarra.**



Zeliakoentzako glutenik gabeko txokolatezko browniea



Osagaiak: **Txokolatea, gurina, arrautzak, arto-irina (maizena), bikarbonatoa, azukrea eta fruitu lehorrak.**

Zeliakoak ahaztu barik, udan, eta edozein sasoiatan, postre gozo batez gozatzeko proposamen eder bat ekarri dugu lerrotara Euskadiko Zeliakoek Elkartearen laguntzagaz. Hasteko, urtu itzazu 150 gramo txokolate eta 150 gramo gurin su txikian, eta utzi epeltzen. Bitartean, irabiatu 4 arrautza eta gehitu egizu 75 gramo azukre, dena ondo nahastuz. Ondoren, 60 gramo arto-fekula (*maizena*) eta bikarbonato koilarakada bat gehitu arrautzen eta azukrearen nahasketan. Epeldu ondoren, gehitu txokolatearen eta gurinaren nahasketa arrautzen, azukrearen, arto-irinaren eta bikarbonatoaren nahasketari, dena ondo nahastuz. Bota egindako oreka margarinaz igurtzitako molde karratu batean eta laberatu 180°C-tan, labana bat sartzean lehor atera arte. Utzi epeltzen, moztu karratuetan eta hautsez tatu glas azukreagaz. Fruitu lehorrak gehitu ditzakezu, apaingarri gisa, gura izatekotan.

gutu bertoko gozorik onenak!

Limoi tarta, tradiziozkoa zein ezinbestekoa den postrea

Neguri Hiriburuko kalean kokatzen da Kimetz Garate Azurmendiren Zurikaldai Neguri gozodenda, eta bera da, hain zuzen, familia-negozioaren seigarren belaunaldia. Udako postre liluragarri baten errezeta ekarri digu: limoi tarta, uda honetan huts egin ezin dizun postrea.

ZEIN DA LIMOI TARTA ONENA EGITEKO SEKRETUA?

Hasteko, tartaren oinarria *sablé* batez egingo dugu, irina, almendra hautsa, arrautzak, azukrea, gurina eta gatzagaz. Base hori, limoi-krema batez beteko dugu, tartaren zapore nagusia. Hurrengoak dira osagaiak: limoi zukua, azukrea, arrautzak, arto-fekula eta gurina. Amaitzeko, suagaz egindako merenge italiar bat gehituko dugu, tarta kolore apur batez apaintzeko eta dastagarriago egiteko. Merengea, zuringoa eta jarabeagaz (ura eta azukrea glukosagaz) egingo dugu azken hori. Erreza, ezta? Orain jateko ordua da! Uda honetan erakutsi zure kozinatzeko abilezia denei!

Oinarria egiteko:
limoi zukua, azukrea,
arrautzak, arto-fekula
eta gurina.



Askotariko zaporeez gozatzeko hamaika izozki artisau, Capran

Bilboko Alde Zaharrea duela 40 urte baino gehiago sortu zen Capra Izozkitegia enpresa familiarak osagai naturalak eta kalitate handikoak dituzten artisau-izozkiak egiten ditu. Bere errezeta tradizionalak, aitonaengandik jasotakoak, aldatu egin dira urte urte eskaera berriei erantzuteko, eta horri esker, Bizkaiko izozkitegi ezagunena bilakatu da.

Don Manuel gozotegiagaz elkarlanean, gurinezko opilaren izozkia sortu zuten, baita mango-marakuia zaporedun sorbete bat garatu ere, beganoentzat eta laktosarekiko intoleranteak diren pertsonentzat egokia; horrek izugarritzko arrakasta izan du aurtan.

Capraren izozkiak enpresaren kioskoetan eta dendetan daude eskuragarri, Bizkaiko puntu askotan banatuta, eta etxera ere eraman daitezke, haien kalitatea eta freskotasuna bermatzen duten ontzi berezietan. Zeren zain zaude?

Hirukira olgetan


© GARBIÑE UBEDA

SOLUZIOAK:



AURREKO
SOLUZIOAK

Margotu Eman kolorea lagun talde honi. Izar batzuk ere marraztu itzazu, gaua da eta.



Sodokua

Loroek hitzun fama dute, ezta? Bete itzazu hutsuneak HIZTUN hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (H, I, Z, T, U eta N). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

Sudokua

Bete hutsuneak, IRATXO hitza osatzen duten hizkiak (I, R, A, T, X eta O) dagokien tokian jarritz. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.





Aldea dago!

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. 9 dira guztira.



Loro hauen artetik bat bi aldiz ageri da. Zein da?

Bikotea

Zeeer?

Zer ari da pentsatzen balea? Eman marrazkitxo bakoitzari dagokion hizkia eta asmatuko duzu. Horretarako, erabili beheko hizki-marrakizki hiztegia.

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

A	B
D	E
F	G
H	I
J	K
L	M
N	O
S	T
U	X
Z	.
:	,
?	!

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Zozketa

Luka eta Utx ipuin bilduma

Ibaizabal argitaletxearen eskumenez, 6 urtetik gorako umeentzako ipuin bilduma zirrargarri hau dugu zuretzako. Irakurtzeko gogoak piztu zaizkizu? Bada, ez galdu aukera eta parte hartu!

Zozketan parte hartu gura baduzu, uztailearen 28a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: [Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus](#) webgunean.



Zozketa

BBK Karpin Fauna

Karrantzako bailaran dagoen Karpin Fauna parkea bisitatzeko aukera izango duzu zozketa honetan izena emanaz gero. Sarrera bikoitzak zozkatuko ditugu eta zureak izan daitezke! Animatu!

Zozketan parte hartu gura baduzu, uztailearen 28a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: [Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus](#) webgunean.



Zozketa

Sendaviva, sarrera bikoitzak

Uda honetan egin bat naturagaz eta eskuratu Sendaviva Nafarroako abentura parkerako sarrera bikoitza! Sarrerak irailaren 15era arte erabilgarri. Egin [HIRUKA](#)lagun eta parte hartu!

Zozketan parte hartu gura baduzu, uztailearen 28a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: [Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus](#) webgunean.



Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/bazkidetu/
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



JARRAI IEZAGUZU INSTAGRAMEN @hirukaeus

Uribe Kostako informazioa zure eskura!

